


PEDRO MIGEL URRUZUNO

UR-ZALE BATEN IPUIAK



AUSPOA LIBURUTEGIA

JB-922

10495

UR-ZALE BATEN IPUIAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

51

COLECCION AUSPOA

Administración: **Plaza de Santa María, 2 - Tolosa**

Dirección literaria: **Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.**

Colegio S. Ignac - Ategorrieta - San Sebastián
(Guipúzcoa - España)

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 280 pezeta Atzerrian: 380 pezeta

Ongilleak: 500 " Ale bakarra: 35 "

PEDRO MIGEL URRUZUNO

UR-ZALE BATEN IPUIAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

1965

Núm. Registro 4072/65
Dep. Legal S. S. 827/65

IMPRESO EN GRAFICAS IZARRA - PEÑA Y GOÑI, 13 - TEL. 17331

SAN SEBASTIAN (ESPAÑA)

ARKIBIDEA

ITZAURREA	9
Ganbelu anaiak	11
Gibel-andi	22
Artobero eta Porrot	29
Alper-andi eta Egoari nagusi-morroyak	36
Antziñako ezkontza bat	42
Anton Zurrut	47
Iru atxur eta iru kirten	52
Ardan-poto	60
Berdintasuna, Biba Igualdat	64
Ijitoak	69
Urte-zalea	74
Ijito baten suertia	83
Santiren jakinduria	89
Iñudiari	97
Ijitoak Pazkoakoan	103
Mallulariak	110
Pareja polita	116
Ijitoak sal-erosiyan	121
Mariari bere bakardadean	127

ITZAURREA

Urruzuno'ren beste ipui-sorta bat dakarkigu gaur argitara. Ipui bakoitzaren bukaeran adierazten dan bezela, errebista zarretatik jasoak dira emengo lan guziak.

Egia da sail ontako ipui batzuek, etzutela agiri ez Urruzuno'ren izen-deiturarik, ez izenaren lenengo letrarik ("P. M."), besteetan oi duan bezela. "Ur-zale batek" beste egille-izenik etzien jarri jabeak. Bañan ala ere, Urruzuno'ren ipuiak ondotxo irakurri ta ezagutzen dituana, berealatik oartuko da izengoiti orren atzean ezin ditekela Don Pedro Migel beste iñor izkutatu. Onetaz ez dago zer dudarik izan. Ain izan da berezia ta bakarra Urruzuno'ren umorea ta idaz-tan-ker.

"Ur-zale batek" egindako ipui oiek "Euskal-Erria" errebistan argitaratu ziran, 1890 urteaz lendik. Urruzunoren asi-berri garaiko

*lanak dira beraz, eta bai onenetakoak ere,
gure ustetan.*

*Eta ipui auek liburu onen erdi bat aña
osatzen duten ezkerro, izengoiti orretaz ba-
liatu gera ipui sorta oni izena emateko.*

*Besterik gabe, irakurle, biotz-alaigarri
izan dakizula Urruzuno'ren euskal umore
jatorra.*

Ganbelu-anayak

Ganbelu anayak ziran bi ikazgille oso beltz, itxusi, andi eta moldakaitzak, eta Josepe Kaikuk esan oi zuan, gizonaren antzik geyen zuan alimalia, bear zuala izan ganbelua; edo beñepeñ, Ganbelu anayak, biak zeukatela gizonaren antza.

Egun batian esan zion anai batek besteari:

—Gure aita zanak esan oi zian, ura zala edaririk onena; eta urarekiñ oraiñ arte bizi izan gaitu; baña aurrera, onela jarraitzen badiagu, agortuko dizkiagu iturri, erreka eta ibayak: zer egingo ditek errota, ola eta prabikak?...

—Nere tripan, —erantzun zion bestiak— baziok itxaso txiki batian ainbat arrai, oraindik txikitxoak bai, baña urtan sortuak, eta bizi-biziyak, eta etziok gudan gauz onik urarekiñ”.

Egun onetan erabaki zuten ez geiago urik edatia.

Donostian zuten diru puska bat jaso bea-

rra, eta badijoaz ara zezenak ikusiyaz. Plazan sartu beziñ laster, asi zan jendia, txapelak erantzi ta ayei agurrak egiten, bai eta ere iru edo lau mutiko, ez zuzenenetakoak, burlaz adar aundiakin soñu jotzen. Ori're bai?... Bai gustatu Ganbelu anayei soñu ura.

—Bai —esaten zuten gero ta gero ere—, guri jo diguten soñu ura... uraxe bai uraxe... diruz erostekoak balira inistrumentrunu ayek, erosiko genitikek bai, naiz ta solpan jakiñ ez: beste musika txoro oyek, *ziri-miri-miri... burun, burun, burun... flintiki flantiki, drún drún drún*, Joxe-Maritarrenak dituk; baña beste ura, gu bezelako gizon ondraduei jotzen zayena.

Ontza bana urre pagaturik, eskuetaratu zituzten inistrumentrunuak, au da, adarrak, eta lau egunez kalerik kale, plazarik plaza, trabenarik trabena, sagardotegi eta bazter guzietan etzan betse gauzarik aditzen, baizik Ganbelu anayen adar-otsa, eta ala deitzen zitzayen gizon auei: ganbelu adardunak. Egiñ ziran gizon sonatuak egun gutxian. Sagardo bete-bete egin ta asten ziran deadarrez:

—Probentzian ta Bizkayan, eguzkiyaren azpian ta Prantzian badago iñor Ganbelu anayen kontra aterako danik, naiz jan-edanian, naiz borroka, naiz karga jasotzen, naiz adarra jotzen, eta beste onelako kirten-

kerietan, datorrela oraiñ; eta bestela dijoala zakurraren salara.

Ziran oso iztun ederrak.

Onelako erronkak bota eta ondorian adarra jo ezkerro, iduritzen zitzayen mundu guzia menderatu zutela. Donostiaren erdia gortu zuten, belarrietako miña egiteraño. Eta gero? A, gero... gero! An dijoaz igesi ganbelu adardunak aurretik, eta Joxe-Maritarrak arrika ayei atzetik Santa Kataliñako zubian barrena.

Akabatu da atakia: Joxe-Maritarrak Donostiara eta Ganbelu anayak beren errirontz, an dijuaz. Amabiak jotzen ari da Santa Mariako erlojua; eta anaya gazteena asten da Abe-Mariak errezatzen.

—Anjelusa —esan zion besteak— erreza-tzen dek eguerdiko amabietan eta ez gauekoetan.

—Eta nola oraiñ diran eguerdiko amabiak... —eranzun zion berriz gazteak.

—A, zoroa! Ez dek ikusten illargia?

—A, kirtena! Ez dek ikusten eguzkia?

Onela zijoazen kimeran, batek eguna zala, bestiak gaba zala; eta erabaki zuten galdetzea lenbiziko bidean arkitzen zutenari.

Onetan zijoazela, asi zan gazteena pipa piztutzen, eta nola etzuen belarrik pipan, ordu laurden bat igaro ondoan, erre zuan sudu-

rra, eta an gelditu zan zapoak bezela itz egi-
ten zuala, *klin klon*, eta *jin jau*.

Badator bidean gizon bat, eta Ganbelu
gazteak galdetzen dio:

—Ainskedea: eonzkia ala iñllargia da ori?

—*No konprender ingelés; Erretereria de
prabika Dilittore ya te sabes*, —erantzun
zion.

—Adiskidea, —esan zion Ganbelu za-
rrak—, ez burlarik egiñ, Euskal-errian dan
gizonik onraduenari. Ez dezu Ganbelu ana-
yen aditzerik? Bada gu gera.

—Barkatu, jaunak; bada uste izan det zi-
ñatela Prantziako ingelesen batzuek; baña
euskaldunak zeraten ezkerro, galde nai de-
zuten guztia.

—Esan zaiguzu: eguzkia ala illargia da
ori?

Egondu zan begira luzarotxo, bein bate-
ra, bein bestera, gora, bera, zerura, lurre-
ra, mendira, urtara eta bazter guzietara, eta
azkenik esan zien:

—Gure errian illargia deitzen zayo gabaz-
ko argiari, eta eguzkia egunazkoari, baña
nola ni ez naizen emengoa, eta ez dakidan
emengo berririk, zuek jakin bear zendute-
ke obeki, ezpaziñate... kir...te...naaaak...

—Eta zu nor zera? —galdetu zion Ganbe-
lu zarrak.

—Ni naiz Trakulu, inguru auetan dan gizonik sonatuena.

—Astorik iñoiz bear izaten badet, agertuko naitzatzu, salgai bazeunde.

—Eta zuk ori esatea! Baña ez naiz aritzen; bada asto andiak ematen du ostikara andia.

—To, artzak bada! —esan, eta bota zion ostikara bat, zeukan indar guziarekin, eta nola goi-karga zeguan, zabu egin, erori eta lurrian lokatzatan exerita gelditu zan, eta beste gauzarik ezin zuanian bota zion bertso bat, ara nola:

Nere Trakulu, dizut
esango egia,
ernayenetakoa
dezula begia;
ez jakifiñ dan eguzki
ala illargia!
amaika astok jaten
dik merke ogia.

Ganbelu anayak jo zituzten adarrak, bat exerita zegola, eta bestia zutik, eta onenbesterekin uste izan zuten Trakulu lurperatu zutela; baña adar-otsa ixildu zanian, somatu zuten Trakuluk kantatzen zuala:

Kabu eta Jeneral,
pobre ta Dukiak,
astoak ere dira
andi ta txikiak;
nunbait zuk al dituzu
begi egokiak,
exeritzeko berriz
nun-nai prest tokiak,
“Ipur-beltz” esan zion
pertzari tupiak! U... ju... juuu!

—Inpernuak ere ez dik artuko Trakulu
ori —esan zuan anai zarrak.

—Enz eta nzeruak ere —erantzun zion
gaztiak.

—Ibiltzia zeukak ba beti airian, eta utzi
degigula guri pakian.

Lokatza artetik jaikitzeke eman zion es-
kua batek besteari, baña lurrian zegoana zu-
titu bearrian, zutik zegoana lurrera erori
eta bata bestearen gafian lo gelditu ziran.
Esnatzean, arrastaka arbola baten ondora
nolabait joan, eta arbolari oratuta, nekez jai-
ki, eta andik laster zegoan trabena batera
eldu ziran, basaz loituak, bat txapel gabe,
bestea jaka galdurik, gerrikoa zintzilik eta
alkandora gerrian zerbait kanpora zuala, eta
Donostian artutako diruak ere kolkuan, ga-
tzagia bezala, zintzilik zituala.

Erronkak bota eta adarrak jo; au da egi-

ten zutena. Barrungo gela batera deitu, eta esan zien batek:

—Badakit gizon ondraduak zeratela, eta eskatzen dizutet mesede bat: bigar eman biar diet diru zerbait bost gizoni, eta nai nuke ganbiatu sei milla errealeko billete mankuko bat.

—Gizona —erantzun zion anayetako batek—: sei millaren lekuan berreun milla eskatu baziñuz ere, ez giñan ikaratuko, eta tori sei millak, Donostian artu ditugun bezala; eta zuk primatu ondo mankuko billete ori; gauzak promal egin biar dira.

Dirua alde batera eta billetia bestera jaso eta pitxar bat ardorekiñ gonbidatu zituan gizon onek bi Ganbeluak, eta ezkutatu zan laster andik bere diruakiñ.

Ikusi dezagun oraiñ nolako ziria sartu zien bi Ganbeluei.

Billetetzat eman zuana, zan paper gorri bat, zeñak zeukan izkribaturik:

Euskal Paper Egintza
Gañ Gañeko Klaseak
100
Kartestalki.

Prima berriz lapitzakin jarria, ara nola zuan:

Ona Ganbelu anai
gizon jakitunak,
gaba ala eguna
dan ez dakitenak;
jan-edanian daude
neurritik irtenak,
bi aitzurrentzat ai zer
nolako kirtenak!

Ogei ta lau ordu trabenan egin-ta, badijoaz beren errira eta etxera; gordetzen dute ondo kutxa-kisketian beren sei milla errealeko papera, onekiñ betiko aberastu ziralako ustean. Ondorengo iru illabetian, Ganbelu anayen bizimodua izan zan jan ta edan, mozkortu, adarrak jo arratoiei ere iges eragiteraño, eta erronkak bota eztarriak urratzeraño.

Trabenariak begi zion Ganbeluen etxeari, bada zegoan leku onian, ardoa konpontzeko, ibai ondoan; baita ere asko saltzeko, bada arkitzen zan plazaren ertzean; eta orregatik ematen zien aiñ erraz eskatzen zuten guzia, denboraz etxe ura beraganatzeko ustean.

Egun baten esaten die bada:

—Oraindaño kontua da bost milla zortzireun eta amaika erreal, eta nai nuke diru ori.

—Ori baño geiago ezpada, —esan zuten

Ganbeluak—, paper batekiñ guzia pagatuko diagu.

Badijoaz etxera eta kutxa-kisketian zegoen billetia arturik, badatoz; eta:

—Tori —esaten diote trabenariari—, artu bear dezuna; eta ikusi, Ganbelu anayak ez dirala edozeiñ-modutako gizonak.

—Jaunak —esan zien trabenariak—, ez da ona paper au, eta ez det artuko.

—Obe guretzat, —erantzun zuten besteak—, ikusiko degu nor zeran zu: prima ezazu ez dezula artu nai, eta kitto.

Artu zuan trabenariak papera, eta parrea eziñ idukirik, irakurtzian an jarririk zeukan berttua, primatzen du, ara nola:

Mutillak ez dik bear
izan oso txarra
Ganbelu anayei
egiteko farra,
dirua kendu eta
eman paper zarra,
au bai dala jotzia
ederki adarra!

Artu zuten papera esanaz:

—Agur; eta gu oraiñ kitto; jo nai dezun lekura.

Oneraño ibilli ziran Ganbelu anayak jakin gabe noiz zan gaba eta noiz eguna, noiz goi-

za, noiz arratsaldia, noiz aste eta noiz jai. Baña agortu zan ardo-iturria, argitu ere bai beren adimentuak, eta juezak adierazi zien, edo-ta paga zezatela zorra, edo-ta bestela eramango zituala kartzelara beren paperarekiñ.

Ai ura estuasuna! Zer egingo dute? Gizonik onraduenak kartzelara? Ez: arriak negar egingo lukete.

Saltzen diote etxea trabenariari sei milla eta bost eun errealian, kondizioarekin sei urte barru atzera biurtzen bazioten diru au erosliari euneko bosteko korrituarekin, etxea berriz ere Ganbelu anayentzat izateko.

Jarri zan trabena etxe onetan, eta atian ganbelu bat adarrarekin pintatua, eta letre-ro bat esaten zuana:

Ganbeluak askotan
oi dira egarri,
ardoak dit etxe au
nigana ekarri;
betiko izan dediñ
danen oroigarri,
ganbelu adarduna
atian det jarri.

Burla au zan Ganbelu anayak geyen sentitu zutena. Etzuan uste trabenariak dirurik bildu zezaketela gizon oyek, eta etxea betiko

beretzat kontatzen zuan. Baña ainbeste min-
du ziran, non esan zion batek besteari:

—Gure aitari urak eramán zioan etxea;
ala ere berriz egin zian. Guri eramán ziguk
ardoak; saya gaitean ia ardoak eramana urak
ekartzen digun.

Erabaki zuten sei urtean ardoaren tanto-
rik ez edatia. Lau urte igaro ziran eta beñ
jo zituan tentazioak ardoa edateko; badi-
joaz trabenara; baña, ikustian atian zegoan
ganbelu adarduna, zezena ondoren jarraika
bazuten bezela, etziran gelditu basora eldu
arte.

Sei urte igaro zituzten ikatz egiten ardo-
rik probatu gabe; bildu zituzten amar mi-
lla erreal, erosi zuten etxea, kendu zioten
ate lotsagarri ura; erre-berritu zuten puska
bat; eta beti gogoan idukitzeko beren aita-
ren konsejua, jarri zioten eskribiturik letra
andiekín:

Edaririk onena
degu ur garbia,
jakiñ nai badu iñork
ara ageria:
au da Ganbelu Jaunen
etxe zar-berria,
ardoak eramán ta
urak ekarria.

Ur-zale batek
“Euskal-Erria”, XIV, (1886)

Gibel-andi

Ezagutzen dezute Gibel-andi?... Ara gizon motz, zakar bat, kokotetik illia zintzilik. eta okotzetik bizarra, atze-aurreetan berdintsu dituela, buru-utsian, paparra zabalik, galtza motzak alondeiko atia ainbateko mantalarekiñ, eta ofñ-utsik geyenian. Udan ikatz egiten irabazten dituen diruak neguan jan —eta edan—, eta bapo bizi dana bere emazte Agera eta alaba Prantxiska amalau urtekoarekin. Badituzte etxian txakur bat eta katua.

Gaixotu zan beñ batian Agera, zeñari medikuak agindu zion aragi-salda. “Agerarentzat salda —esan zuan Gibel-andik— eta nerezat aragia”. Badijoa baserretik kalera aragi eske Gibel-andi guria goizeko bostetan, eta illuntzian ere ez da oraindik agiri. Nun da gizon ori? An dabill trabena batian dantzan bazter guziak apurtu bearrik. Ara nola kantatzen zion Kaziñta, trabenariaren alabak:

Andria oian eta
Gibel-andi dantzan,
Paloak ematia
Merezi du plazan;
Agera sendatzeko
Larri izan bazan,
Ez dago gaizki gizon
Onen esperantzan. Uxta!

—A biajon diñala, Kaziñta! I bezelako mutillik etzion Prantzian ta proentzian egia gizonari esateko —zizon Gibel-andik—. Uju... ju...!

Eta aragia non da? An darabill gerrikotik zintzilik.

Bigaramon goizian esnatu zan non zegoen etzekiela, ez eta ere zer garai zan, eta oraindik dudan bere buruaz Gibel-andi ote zan. Konturatu zan arkitzen zala trabenako atian; esan zuan:

—Ni nauk Gibel-andi, bada aragia emen zio, eta Agera gaixoari salda ona gaur gabian norbaitek emango zio.

Uste zuan gizajoak illunabarra zala, eta zan egun-sentiya; da esatia, ostiral-illuntzia zalakoan, zan larunbat-goiza.

Etixeruntz zijoan bezela, zijoan ere eguna argituaz, eta konturatu zan etzala ostiral-illuntzia, baizik larunbat-goiza. Ai aren larriya! Zer esango det etxian? Nola estali

egiñ dedan uts-egitea? Galde oek bere bu-ruari egiñaz zijoan Gibel-andi aragia gerrikotik zintzilik zuela, eta onetan eltzen da atzeko atera. Txakurrak, pozkerian dabilkiola, eramaten dio aragia, Gibel-andik pen-
satu ere gabe alako gauzarik. Badijoa emazteagana:

—Zer modu, Agera nere biotzekoa?

—Emen gaude dietan.

—Badakizu, Agera maitia; Abenduan gaude, penitentzia egin bear degu, eta atzo nola zan ostirala, ez nuen etxera ekarri nai izan aragirik.

—Ondo da, Jualimo (1): nik egiñ nuen atzo penitzentzia, eta uste det zuk ere egingo zenduela, ni bezela egon baziña.

—Ixo, ixo, salda egitera noa...

Baña aragirik etzan agiri. Ai ura larritasuna! Nere pama nora dijoa...? Egiñ zuen baratzuri-salda koipe puska batekiñ, baña Agerak laster ezagutu zuen etzala aragi-salda, eta galdetu zion:

—Jualimo: gaur ere ostirala al degu? Salda onek ala diruri, bada aragirik ikusi ere ez du.

—Emakumea, artu ezazu pazientzia puska bat. Etxera eltzian, zugana etortzeko sartu det aragia kutxan, eta gero, salda egiteko

(1) Jerónimo. (Egillearen oarra.)

billa jua naizanian, katua bakarrik arkitu det kutxan, eta katu orrek jana da aragia; bi libra oso-osoak.

Gibel-andik txakurra guziz artua edo gogokoa zuen, baño katua eziñ begiz ikusi zuen.

Agerak bere alaba Prantxiskari deitu, pisuak eta katua ekar-erazi eta katua pisatu zuen, Gibel-andi aldendu zanian. Ogei ta amar ontza pisatu zituan. Onetan sartzen da Gibel-andi bere emazte gaxoaren gelan, eta katuak ura ikustian “miau, miau,” egiñaz, iges egiñ zuen.

—Zer darabilzute? —galdetu zien Gibel-andik bere emazte eta alabari.

—Katua pisatzen gabiltza; eta uste degu alperrikakoa dala katu oni jaten ematia; bada bi libra aragi jan ondoan, ez du pisatu ogei ta amar ontza baño geiago.

—Katuak eta emakumeak —anima apartatuta— berdintsu zerate, zitalak eta setatsuak, baño beiñgoan amaituko det kontu au, egia argiro esanaz. Abenduan gaude, gaur larunbat eta barau eguna da, aurten buldarik artu eztegu, eta nai dezute aragi-salda artu? Ez, ez nere etxian orrelakorik, arrayiak ezpaitu.

—Ez aserratu, gizona —esan zuan Agerak—; artu diozu, menturaz, buldarik txakurrari?

—Oraindik geiago adituko degu; txakurrari bulda?

—Gizona: nik somatzen det oe-pian txakurra, kirri eta karra aragi ezurren bat jaten.

Badijoaz oe-pera begiratzera, eta gure txakurra an dago bi aragi zati eta ezur bat berekiñ dituela. Au ikustian an dijoa Gibel-andi aotik sua dariola esanaz: Emakumiak berenaz ateratziagatik mundua azpikoz gora jarriko lutekela eta oraindik deabrukeri andiangoak adituko dirala; eta dio:

—Kontu au geiago iñork aipatzen ere badu, bere denborako oroipena izango du, Jua-limo Gibel-andi bizi bada.

Igaro ziran zazpi aste, eta pozik zegoan Gibel-andi iñork etzekizkielakoan bere kontuak.

Badator Santa Ageda-bezpera-gaba. Agerak ekarri zuen pitxer bat ardo apaitarako, baita ere libra bat solomo; Gibel-andi an dago upela baiño andiagoko mozkorrekin su-bazterrean aparia zaitzen, ama alabak txerriei jaten ematen dauden bitartean. Onetan badatoz atera Santa Ageda-eskaliak: Gibel-andi badijoa leyora ayei aditzera, eta eskaliak asten dira kantari:

Kantatzen asi gaitian
Gibel-andiren atian,
Mirari andiak egin ditu
Jaun onek egun batian.

Danian ardo ugari,
Egiten asko mirari,
Mentajarik ez dio egingo
Iñork munduan berari.

Jenioz zerbait arrua,
Guziz beltza du larrua,
Zaagia bezala beztua
Daukala pikez barrua.

Bi libra aragi ditu
Bere katuak garbitu,
Alare ogei ta amar ontza
Pisaturik da gelditu.

Kristau ona izan ala
Gordetzen du ostirala,
Txakurrari bulda artu, berak
Gabe gelditzen zirala.

Gibel-andiren katua,
Txakur madarikatua,
Bien artian agertu dute
Gizon onen pekatua.

Katuak *mi-a-u, mi-au*
Txakurrak berriz *au, au, au*
Bere paltak estali ezifiez
Larritxo dabill gizon au.

Suturik Gibel-andi gauza oyek aditzian, artzen du pitxer ardoa, ura zalakoan, eta botatzen die burutik bera kantariei esanaz:

—Zuek bezelako giza-txarrak ori merezi ditek.

Txakurrak solomoa jan zuen, eta Gibel-andi oeratu zan, emakumeak, giza-txarrak, katuak eta txakurrak berdintsu zirala esanaz.

Bigaramon-goizian jeiki zan, eta bezperako mozkorrak alde egin zion, gogoratzian zenbat kalte eta zenbat lotsari erakarri ziozkan bere denboran ardoak, egin zion promesa Santa Agerari urte bete osoan ez ardorik edateko. Kunplituko du? Ez dakit, bada oraindik sei illabete dira au gertatu zala; eta denboraz esango dizue

Ur-zale batek

“Euskal-Erria”, XV, (1886)

“Baserritarra”, 110, 1908-ko
Abendua-ren 19-an.

Artobero eta Porrot

I

Jayo zan Zoyetako baserrian aur eder bat, zeñari batayoan jarri zioten izena Arturo. Besoetan artu zuten Porrot-ek eta bere emazteak, onen aizpa lagun zutela aurra eramateko. Etxeraturik emakumeak umearakiñ, Porrot gelditu zan oraindik atzera.

—Zer izen jarri zayo umeari? —galdetu zuan amak oetik

An ziran estuasunak oroitu cziñez:

—Tartaro... Tortero... Kartero... Artero... Portero... edo... edo... oyen antzeko bat, —erantzun zuten emakumeak—; baña Porrotek esango digu zuzen.

Badator Porrot illunabarrean etxeruntz mormorretan: “Bai; gaiztakeria, gezurra eta lapurreta besterik ez dago oraingo munduan” —esaten zuala, eta arrola andiyak egiñaz. Zer pasatzen zayo gizajoari? Zer? A! Mozkorra artu du, eta zigarro-purua artzen dualako ustean, artu du trabenan —au da, ostu du— Kataliñen jostorraz-ontziya, eta

aoan arturik, ura piztu ezinez, erre ditu ogei ta zazpi poxpolo, baita ere eskuko bi beatz; eta poxpolo bat, ondo itzali gabe, botatzian, erori zayo jakaren poltsikora; an zeuzkan beste poxpoloak; abek su artzen dute, baita arropak eta buruko tximak ere; eta anima purgatoriokoa diruriyala, sartzen da etxean, au da, Zoyetako baserrian. Eskerrak Joxepiñaxi neskamiari, zeña zetorren iturritik sulla bat urekiñ; sartu zion Porroti burutik bera sulla, eta eman zion mañu ederra. Ontzi galduko mariñela ziruriyan gizajoak, edo, obeki esateko, kartoi eta briakiñ egin-tako ekanza. Lanik asko bazan Zoyetan Porroti arropa bustiak ateratzen, legorrak jaz-teko. Larrua kentzen ere ez dakit asko gai-tzago izango ote zuten, eta bitartian an ze-goan Zipot-andi, parrez lertzen, bada baze-kian gertatu zan guzia.

Apal ondoan, azturik lenagoko kontuak, etxeko nagusi Zipot-andik, bota zion Porroti bertso bat, kantatuaz:

Ostu badezu ere
joztorratz-ontzia,
pekatuak berekiñ
du penitentzia;
gogoangarri dezu
gaurko illuntzia
ur ta suakiñ egiñ
dizute jantzia.

Bazijoan aserretzen Porrot, baña emakumeak galdetu zioten:

—Zer izen jarri zayo umeari?

Zerbait ere aopian esan zuan, baña etzioten aditu.

—Nola esan dezu? —berriz diyote emakumeak.

—Gorrak zaudete? ala nai dezue solpan esatea? —erantzun zuan Porrotek—. Aditu bada:

Izaten banaiz ere
zenbait aldiz bero,
pronostikua artzen
det nik urteero;
goguan ezazute,
kontuz artu gero,
ume onen izena
dala Artobero.

—Jaungoikoak bedeinka dezala —esan zuten guziak; eta —Izenaren jabe izan dedilla —erantzun zuan Porrotek.

II

Ill zan Zipot-andi, baita Porrot ere, utzirik beren oñ-ordezkatat Arto-bero eta Porrot gaztea —zeñari deituko diogun ere Porrot—, izaten zirala bi semeak alkarren adiskideak, beren aitak ziran bezela.

Joan zan Artobero, ogei urte zituanian, trozoetara, au da, burdin-bideetan lan egi-tera, eta iru urteren buruan agertu zan mutill dotoretzua, burua ondo orrazturik usai gozoko urarekin, korbata, erlojua kate andiarekiñ, gerriko sedazkua, pañolua ere bai, jakaren poltsikotik erdia kanpora zintzilik, erdarazko galtzak, erraztuna eskuko beatz batian, eta... nik dakit zenbat gauza? Ura Artobero zala sinisten, etzan errez.

Adiskide zan bere lengo lagun Porrotekiñ, eta askotan oi ziran elkarrekin trabenan. bada Artobero jauna, kanpo oyetan oso ardozaletu zan. Panparroi zebillen, batez ere erdaraz mintzatzen zanean; *tonto-lapiko*, *burriko* esanta, zenbait aldiz ixil-erazo zuan Porrot gizajoa.

Etzitzayon Porroti iduritzen aiñ garbi-garbiya Artoberoren erdera, eta nai zukian ikusi, nola mintzatzen zan erderazko erdal-dunakiñ. Jai-goiz batean mezatara zijoazen bi adiskideak, zeñai galdetzen die soldadu batek:

—¿Dónde está la iglesia?

Bereala erantzun zion Artoberok:

—¿Un emakume, edadekotxo, koziña abajo, tienda kanton-plaza? En alli de casa.

—Arrayia-polatu, ez nian uzte orrenbeste intzanik —esan zion Porrotek Artoberori—. Zer galdetzen zian?

—Ingelesaren andria non bizi dan.

—Uste nian esan zuela kondia ez dala in-gelesa.

—A tontoa! Ez dik esan “konde” baizik “donde”, au dek, “nun”.

—Etzekiat ba ire erdara ori ere jator-jatorra ote dan, zergatik “koziña abajo” etzekiat zer dan, baña gañerontzekoak or non-bait nik ere esango nitikek.

—Ezpadakik, ikasi, eta bestela ixilentzio!

Porrotek sarritan galdetu izan zion zerbait Artoberori erdararen gañian, baña etzion beñere gauza zuzenik esaten; baizik beñ batera eta beñ bestera, eta orregatik deitu oi zion itz-biko gizona Artoberori.

Galdetu zion eskola-maisuari Porrotek:

—Zer esan nai du, “koziña abajo’k”?

—Urdai-azpikua —erantzun zion maisuak.

Au aditzian, badijua Porrot Artoberoren billa, eta arkitzean trabenan, botatzen dio onako bertso au:

Gizonak ez dik bear
izan itz-bikua,
“koziña-abajo” dek
urdai-azpikua;
ez jakiñagatikan
erdaraz naikua,
ez nauk ik uste beziñ
tonto-lapikua.

Jaiki zan bereala Artobero, eta diyo:

Para los tontos no se
erdera la hacer,
¿tú aprender como mí?
eso no poder ser:
kalabaza kabeza
no sabes tú ezer,
boliño de burriko
mutxo tú parecer.

Aserratu zan Porrot, eta esan zion Artoberori:

—Jakiñ nai nitek orren arro ibiltzeko oroitzen ote aizen ire izenaz.

—Nik nai nitek jakiñ ire izenaren jatorria —erantzun zion Artoberok.

—Jaitzak gaztañak eta berez ikasiko dek.

—Zer esan dek?

—Zuek, Zipot-anditarrak, zeratela edo gorrak edo solpa-zaleak, bada aditu niokan nere aitari ire izena zala berak solpan jarriya.

—Oraiñ esango diat bada solpan Porrot-izenaren jatorria:

Zorioneko gaztañ oyekin
betetzen badek zipota
oyen aiziak ezingo dituk
kanpora nola-nai bota;

asiko zaik, bai, nonbaitetikan,
tronpetatxuen plit-plota,
dantzatutzeko erri guzia
soñu ederrak ik jota.

Artoberok:

Gaztañ-aiziak dabiltzanian
Zipot-barruan borroka,
Indarra ditek ateratzean
puskatutzeko arroka;
onelakoak jarri lezakek
merketxo aize-errota,
iri eskerrak, orain zekiat
zergatik aizen Porrota.

Ez dakigu ill ala bizi diran bi adiskide
abek, bada aspaldian ez dira agertzen, eta
errazago diruri, arraya urtara gabe egotea,
oek trabenara gabe baño. Ala ere denboraz
zerbait berakgatik esango dizute; baño nork?
Gizon mozkorrai begira farre asko egiñ oi
duan

Ur-zale batek
"Euskal-Erria", XV, (1886)

Alper-andi eta Egoarri nagusi-morroyak

Alper-andi, izenaren jabe zalarik, zan ere trabena zaletxoa, eta morroyak denbora gutxi egiten zuten bere etxean. Sartu zan morroi Egoarri aren etxean, biak elkarrekiñ denbora asko egiteko asmoan. Baña laster aspertu zan nagusia; alare eziñ zuen bota etxetik morroya. Nagusia berandu jaikitzen zan, beranduago morroya; eta ori, egunero nagusiak sermoi bat egiñ bear izaten ziola jaikiko bazan, nunbait izenaren jabe izateagatik. Gau batean, kontu kontari zeudela sukaldean, esan zuen auzoko batek:

—Zer da gauzarik onena logalea ekartzeko?

—Mozkorra artzea —erantzun zuen batek.

—Gaba galtzea —beste batek esan zuen.

—Lanean ondo nekatzea —zion nagusiak.

—Jaunak —esan zuen morroyak—, bakoitzak bere iritzia esango du, baña neretzat logalea ekartzeko gauzarik onena da, nere nagusi maite-maiteak goizero egiten didan sermoya.

Emen guziak ixill-ixillik gelditu ziran.

Bigaramon goizean deitzen dio nagusiak oyetik morroyari.

—Aizak, mutill; jaiki ari.

—Bai, bai; berealaxe —dio morroyak.

Andik laster dio nagusiak:

—Mutill, jaiki intzan?

—Bai, bai; orantxe noa...

—Abarkak jantzi dituk?

—Baita, baita; bat jazteko eta bestea orantxe jaztera.

—Begira zak sukaldean surik dagoan.

—Ongi da: mox, biz, biz, biz, biz... miziña... miziña... mox...

—Zer: katuari deitzen diok?

—Bai, bai: katuak su ondoan lo egiten du, eta epel badator, siñale da sua dagoala.

—Ikusi zak euririk ote dan.

—Baita ere: fiu... fiu... fiu... (*txistuka*) moriko, moriko...

—Zer ari aiz?

—Txakurrari deika: bada atariyan lo egiten du, eta bustiya badator, siñale euria dala.

Emen oso aserretu eta sutzen da Alper-andi, eta deitzen dio:

—Egoarri: ua nere etxetik.

—Ema-iztatzu soldatak —dio morroyak.

—Emango dizkiat igandian.

—Juango naiz astelenian.

—Zein da nagusia?

—Soldata ematen duena.

. —Aitzakia ugari: soldata gabe ere joan bearko dek gaur nere etxetik.

—Juezak agintzen badu bai.

Juezaren izenak beldurtu zuan Alper-andi, bada len ere juezez aspertua zegoan, eta ar-terañoeko guzia jolasean izan bazen bezala, elkarrekiñ trabenara joan, pitxerdi bana edan, eta asi ziran bertsoetan:

Nagusiak:

Amalau dukat iri
bazeuzkat emanik,
oyen erdirik ere
ez dek egiñ lanik;
ayek emana ere
damu diat bai nik,
zergatik ez dagoan
irekin gauz onik.

Morroyak:

Nerekiñ ezpada're
gauz onik izango,
morraletik ez dizu
zuri iñork jango;
soldatak artu gabe
ez naitzatzu joango
dantza-erazo gabe
naikoa pandango.

—Ai! Ai!; nik baiño obeki daki onek le-
geen berri —esan zuen bere barruan Alper-
-andik—; ongi konsejatua dago; gaitzian eziñ
ezer egingo diot, eta onez onean zerbait
egia bearko.

Goiz batean, Egoarri oyan zegoala, beti
bezela, joan zitzayon nagusia poltsa bat diru
eskuan zuela, esanaz:

—Zarren esaera da, goiz jaikitzen danari
Jaungoikoak laguntzen diola, eta egia da:
goiz jaiki naizelako, topatu det diru-poltsa.

—Beraz soldatak pagatzeko dirua badezu
—erantzun zion morroyak.

—Etzekiat zenbat diru dagoen: baña esa-
ten diat, lengo zarren esaera dala, eta egi
andia, Jaungoikoak laguntzen diola goiz
jaikitzen danari.

—Goiz jaikia izango zan bada poltsa gal-
du duena ere, Jaungoikoak lagundu badio
edo ezpadio. Baña nik ez det beñere goiz
jaikitze gogorik. Badakizu zergatik? Pol-
tsa galtzeko beldurrez.

—Ago ixillik, beti aitzaki billa ibilli gabe,
alper tzar ori.

—Gizona bazera, gaur gabea txurrut bat
emango al dezu nonbait, poltsa orretatik pa-
gatzeko.

—Onekiñ gauz onik etziok —esan zuen
bere gogoan nagusiak—; eman ta pakea.

Ekarri ziran bi pitxar ardo, eta afal-on-

doan ayek edanaz, zerbait zerrepeldu zira-
nean, asi ziran bertsoetan:

Nagusiak:

Oso maite zaitut nik,
o nere morroya!
baña maiteago zuk
dezu zure oya;
egiñagatikan nik
goizero sermoya,
lanerako zera zu
alper zerekoya.

Morroyak:

Zu zera Alper-andi,
ni naiz Egoarri,
askotxo nai diogu
guk biok elkarri:
baña alare gera
ibilliko larri,
ezpadiogu gogoz
ekiten lanari.

—Egia —esan zuan Alper-andik—; lana...
lana gogotik egitea, ori da bear dana; baña
goizean goiz jaikitzeke gure morroya, zer
egiñ nezake? —zion nagusiak, konturatu ga-
be morroyak aditzen zuela.

—Tratu bat —erantzun zuen morroyak—;
emendik aurrera goizean lenengo jaikitzen

danak, izan dezala eskubidea *ttotta* bestearen kontura edateko, eta ondorian, oyian dagoanari pitxar bat ur burutik bera botatzeko.

—Ondo da; bigartik —erantzun zuen nagusiak—, bigartik asiko gera.

Onetan daude; eta gertatzen dana esango dizuet.

Ur-zale batek

“Euskal-Erria”, XIX, (1888)

“Euskalzale”, 1898, Aprilla-ren 21-an

“Ibaizabal”, 69, 1903-ko Jorraillaren 26-an

Antziñako ezkontza bat

I

—Dran... dran... dran... dran... Abe Maria!... nor da emen?

—Je... je! kontu, kontu, ate zar ori puskatu gabe; aurrera, Baltasar.

—Illuntzi on, Joxe Mari.

—Ala ekar degizula.

—Banekien oetik ziñana, eta ikusi bat ematera natorkizu.

—Jainkoak paga degizula zure borondate ona.

—Gañera mesede bat eskatzera nator.

—Eziñ ukatuko dizut bada, ikusirik zure borondate aiñ ona.

—Bigar goizean eskontzeko ustean naiz, eta alkandora bat eman bear didazu.

—Ai, adiskidea! Alkandora bat bakarra det.

—Eta zer? Egun batian egon zindezke alkandora gabe, oian zauden ezkeru.

—Ordea, nere alkandora lixiban det; eta orregatik nago oian.

—Gizon aberatsa zande, alkandora bat besterik ezpadezu.

—Aizazu: zenbat dituzu zuk?

—Ni oraindik ez naiz gizon egiñ.

—Mutill gazte zeralarik alkandora bat ezpadezu, ezkondutakoan ez dituzu bi izango. Gizon berriz, ez egiñ eta ez egiñgo.

—Joxe Mari: letraukeri askotxo somatzen dizut. Zugatik pobriak larrugorrian ibilli bearko dute.

—Zuk ordea jantziko dituzu.

—Agur... agur...

Amaika alper ogia jaten
badago emen lurrian,
ni banaiz zerbait, baña baditut
geiago ere urrian:
zu baño gizon prestuagorik
ezpalitz Euskal-errian,
askok ibilli bearko luke
zugatik larru-gorrian.

—Pobretxea naiz larru-gorrian
daudenak jazten asteko
Eta zuk berriz biotzikan ez
Jantzirik gabe uzteko:
Alkandorarik asko badezu
Baña oraindik josteko,
Gañerakoan asko lirake
Bakoitzari bi jazteko.

II

—Aizazu, Joxepa; ezkondu omen da Baltasar.

—Ala esan dute.

—Eta alkandora?

—Trapu-zar saltzalle bati erosi omen zion bart, baso bat ardoren aldera.

—Ederra izango zan orrelako alkandora.

—Bai, bordatua bezelakoa, da esatea, zulo asko-duna eta aukeran anditxoak dituana.

—Eta etzion andre-gayak alkandorarik eman?

—Bai, ta ederra; baña pitxer bat ardoga-tik saldu zuen.

—Eta ala ere ezkondu Joxepiñasi gaixoa orrelako batekiñ?

—Bai, emakumea; eta pozik ala ere, nere ustez.

—Eta eztayak?

—An zebillen Baltasar dantzan bazter gu-ziak puskatu bearrik bazkal aurrean, eta gero arratsaldean maipean lo.

—Eta Joxepiñaxi?

—Berari begira, eta “gizajoa, ogi puska baño ohea da” esanaz.

—Ori ondo, ori ondo, eta... or konpon.

—Bai, bai: berriz ere kantatuko dute:

Neska-zarrari zarraren zarrez
illia zayo urdindu
ezkondu nai ta beti bakarrik
amaika negar egin du;
aurrerakoan baldin badiyo
gizonari nai agindu,
gizonak berak bear dizkio
makillaz autsak astindu.

—Etzayo gaizki etorriko. Agur... agur...

III

—Tan... tantantan... tan, tarrapatatan.

—Nor da or orrenbeste ixkanbillarekiñ?

—Ni, Joxepiñasi; ez ikaratu. Nagusiak
esan dit, etortzeko norbait, Baltasarren eske:
an dago gaixoa ondoeza eginta trabenan.

—Ondo dago, trabenan badago; bada bere
gaitz guzientzat botika bertan dauka. Zazpi
egun oetan ezta etxeratu; onezkero bertako
egiñ da, eta artu ezazute zerontzat.

—Ez... ez, Joxepiñaxi gaisoa,... ez. Bada-
kizu; beia ere, esnedun dagoenian, on da
etxian, baña antzutu ezker, badakizu...
badakizu...

—Beraz beia ondo jetxia izango dezute, e?

—Bazituen txanpon batzuek, baña oraiñ
murritutxo dago; soñekoa ere ona zuen,

baña saldu du, eta ala ere oraindik durotxo
bat zor... zuk pagatuko... bazendu... orra...
orixe... naiko... nuke... eta...

—Eta... eta? Ezpazuaz eskaill-burutik, au-
tsiko dizut kopeta.

—Ez, ez: kopeta austeia baño naiago det
etxera joan kantari:

Baltasar dago antzaturikan,
Joxepiñaxi ere bai,
senarrak zorrak eziñ pagatu,
andreak herriz ez du nai;
gizona beti trabenan dago
naiz dala aste ta naiz jai,
Joxepiñaxik damu du oso
ez gelditua ezkongai.

Irurogei ta bi urteraño
beti ezkongai egondu,
emakume au berak nai baño
lenago ezta ezkondu;
damaturikan arkitutzen da,
baña oraiñ da berandu,
uztarri ori eziñ diteke
ez autsi eta ez kendu.

Ur-zale batek
“Euskal-Erria”, XXI, (1889)

Anton zurrut

Anton zurrut zan gizon bat, askok maite zuena, batez ere ardo saltzalleak; bada zan edale polit bat, eta gañerakoak ere egiten zuten farre asko aren lepotik.

Goizean edan oi zuan pitxerretik, eguerdian zaagitik, eta arratsean upelatik, eta gero etxerutzen zan lau-ofñian, askotan mokor gañetik gerrikua zintzillik zuela, eta zirudiela errotako okulluan egon oi diran aye-tako bat, anima apartatuta.

Gauzarik atsegiñen bat, gure Antonentzat, zerbait ondotxo betetakoan, zan kantatzea *Iru Damatxo*, edo *Txakoliñ*; bada besterik etzekien, eta onen iritzian etzan mundu guzian bera baño kantari oberik, beñepein solpan etzekienik, berak esan oi zuan bezela. Prantzes erdera eta solpa, onek ustez zuanez, biak berdiñ-berdiñak ziran, bixkiak ezpadira ere, gutxienaz anayak, aita batenak, deabruzarren batek asmatuak, *kilimetroak* eta *makilitroak* bezela.

Kantari zegoela ardan-gela batian, iduritu zitzayon arratsalde baten, Mari-Andres zeri-

tzan andre alargun bat, aurrez-aurre bizi zana, negarrez zegoela, eta esan zuan bere baitan:

—Etziok eguzkiaren azpian biotzik, arrizkua izanta ere, nere kantuak biguñduko ez lukenik.

Ala uste zuan gizajoak, bada ardoaren argitasunarekiñ ekusten zituan etziran gauzak ere. Andik laster Mari-Andres zegoan etxeko atarian; deitzen dio Antonek, eta esaten dio:

—Badakit, Mari-Andres gaxoa, atsekaberen bat badezula: bada ekusten ditut zure begiak negar-malkoz bustiak. Jakiñ nezake zerk ixur-erazoten dizkitzun negar-malko oyek? Pozik egingo nuke alegiña guzia zure biotz orri samintasun guziak kendu eta atsegiñ emateagatik.

—Asko estimatzen det zure borondatia —erantzun zion Mari-Andresek— eta esango dizut itz gutxitan. Jakiñ ezazu bada zure kantuak eta ez beste gauzak ixur-erazten dizkidala nere malkoak, biotz guziz gogorrekoa banaiz ere.

—A! —esan zuen Antonek—; ordea, oyek dira negar-malko gozoak.

—Ez —dio Mari-Andresek—; dira guziz samiñak.

—Emakumea! Ez dakit nola izan diteken kontu ori.

—Adi ezazu bada. Banuen asta-kume po-

lit bat, oso maite nuena, eta oraiñ bi urte galdu zitzaidan nola ez nekiela; geroztik artzaz oroitzian, sarritan negar egin det; baña ala ere aspaldian azturik bizi nintzan. Gaurko arratsaldian, aditzian zure *kantua*, iduritu zait nere asta-kume aren *arrantza*... eta...

Emen sentitu zuen Antonek otzikara bat ezurretaraño sartu zitzayona, karranpak, gorra eta berakoa; eta kolera berakiñ zuela-koan, eraman zuten bere etxera.

Bi egun egiñ zituan oyan, ura, te eta laudanoa besterik artu gabe; baña nola eman zizkioten erremedioak, presaka eta arrapatkan, jaiki zan gizajoa aizea zeriola, ots ederrak ezker-eskuietara banatuaz. Era onetan zijoan tabernara, eta ara eltzian, tabernariak eta biyak egiñ zioten elkarri ongi-etorri aiñ andia, non zirudien, Amerikatik zetorrela, eta urte askoan elkar ekusi etzutela. Bereala asi ziran zurrutian; baita ere, ardoa tripara erortzian, asi ziran aizeak tripatik kanpora hurrundara andian.

Sopla!!... Sopla!! —esan zuen erdaldun batek otsa aditzian.

—Solpa... Solpa esaten dek? —diyo Antonek—; naiago nitek baneki ire sudur motza baño.

Eta bertsolaria baizan edan ezkerro, bota zion erdaldunari bertso au:

Erderaz bazekiat
ardoa da *pan*
ogia herriz biño
ver edan, *beber* jan.
Ikasi izan banu
apurtxo bat solpan,
Gayarrentzako lanik
ez uan European.

Agertzen da leioan Mari-Andres, eta len-
bizian ikaratu zan zerbait Anton-Zurrut, ba-
ño pitxer bat bota, eta aize batzuek atera zi-
tuanian soñu-joaz, bota zion ere Mari-An-
dresi bertso bat era onetan:

Mari-Andres zuk eman
zenidan kolera,
eta laster eraman
ninduten oera;
baña oraiñ etorri
naiz leku obero,
laudano danak baño
ardoa obe da.

Ango txalo jotzia, ango *Biba Anton!* dea-
darra; ixkamilla andia zan, eta Antonek au-
si zituan ere pitxerra, baso bat eta bi kris-
tal. Ixildu samartu ziranian, nola Antonek
zeukan atentzio guzia Mari-Andresegan, so-
matu zuen emakume au etxeko atarian iru-

ten eta kantari zegoala, eta ona emen zer aditu zion:

Arrayak ezurra du
larrosak arantza,
ardoaz ez geiegi
artu konpianza:
izan ez dezazuten
astoaren antza,
kantatu bearrian
egiñaz arrantza.

Au aditzian asi ziran karranpak, baña ala ere esan zuan Antonek:

—Perran Dotoriak sartzen duela koleraren kontrako txertua? Mari-Andresek, bai, sartzen du mozkorraren kontrako kolera. Eniatok geiago trabenara.

Esan ta egiñ, kunplitu zuen esan zuena.

Balekite mozkorrak, zeñ gauza itxusia dan mozkortzia, egingo luteke Anton-Zurrut-ek egiñ zuena.

Ur-zale batek
“Euskal-Erria”, XIII, (1885)

Iru atxur eta iru kirten

I

—Aizazu, Pello: zergatik orrenbeste ardo edaten dezu?

—Gizona; nik este bakar bat det tripan, eta bera zuzen-zuzena, eta ala, aotik sartu-ala, bete-ala dijoa bere bidez kanpora, eta apurtxo bat bada're barruan geldituko bada, egarria iltzeko, askotxo sartu bear izaten det.

—Barru orretan askotxo gelditzen ere da; bada ikusten zaitut iñoiz arrolaka, eta oraindik geyago: zure lagunei aditu izan diet, zure aoko ardo-lurrunarekiñ orditu izan dirala.

—Eta zer? Nere lagunak ondorik probatu gabe, nere aoko lurrunarekiñ orditzen badira, nere barruan pasatzen dan ardoaren urrunak, ni arrolaka erabiltzeari asko deritzazu?

—Baña, gizona, Pello; orrenbeste edatea ez da ondo.

—Ez gaizki ere; eta badakizu zuk, zenbaterako egarria nik izan oi dedan?

—Edan ura.

—Uste det ardo asko edaten duenak ur asko edaten duela, bada gure trabenariak erretoreak baño obeki dakite ezkontzak egiten.

—Gizona; zer ari zera esaten?

—Egi-egia. Orain bost illabete ezkondu zitan erretoreak Motrollo eta Gonazar, eta zortzigarren eguneko apartatu ziran; baño gure trabenariak ezkontzen dituzten ardo eta ura, dira bi, gorputz batean elkartuak ill-ta-bizi-ko.

—Gizona; edan ezazu iturriko ura ezereu naste gabe, eta orra gauzarik onena osasunarako.

—Noiz ezkeru zaitugu zu mediku? Añ ona bada osasunarako, ni beñ osasun-zalea zera zu zerorri ere, eta edan ezazu nere kontura nai dezun ur guztia, eta nik edango det ardoa zure kontura.

—Zuk dezu aterik ainbat maratilla, eta buruko miña ere egin dirazu.

—Asieran eman bazenit pezeta bat, pitxar bat edateko itz gutxiagorekin, ez nizun egingo buruko miñik; etzitzaidan ere egingo neri eztarriko legorrik, baño egin zatan ezkeru, banua eztarriya puskatxo bat busti-

tzera, orretarako lenengo botatzen dizudala
bertso bat edo beste:

Ez naiz ni medikuen
konsejuen gura,
zuk esateko edan
deзадala ura;
ona da projimoaz
zuk dezun ardura,
pasa ziñan ezkerro
uretik ardora.

Mingañez dirudizu
gizon guziz ona,
baña galtza danetan
ez dago gizona;
ez da asko izango
opa dirazuna,
estimatzekoa da
zure naitasuna.

Pitxar bat ardo oraiñ
bear det atera,
atöz zu ere bada
nerekin batera;
zure osasunara
noa edatera,
konbidatutzen zaitut
begira egotera.

II

—Aizazu, Pello: gauza arrigarriya da, zuek, iru anayak, izatea elkarren antz aiñ andikoak.

—Eta zer? Anayak ezpadute elkarren antzik, nork izango du?

—Ez det ori esan nai; baizik aiñ ardo-edale andiak izatea irurak.

—A, bai! Orretan asko gera elkarren antzekoak lurrian; senitarte guziz andiya gera: anai osoak, anai-erdiak, eta uaz-anayak.

—Nola?... Nola da kontu ori?

—Onela: nai-ala ardo edaten dutenak, dira gure anai osoak; erdipoerdi edaten dutenak, anai-erdiyak; eta nai eta edan eziñ dutenak, uaz-anayak, zu bezela.

—Eta ardo-zale ez diranak?

—Ez det oraindik bat bera ezagutzen oye-takorik, baña orrelakorik munduan balego ere, badakit beñ ardoa edango balu, gure senitartean laster sartuko litzakela.

—Bai, bai; zuk atzo ere “atxur” ederra bazenduen zedorrekiñ.

—Eta noiz ez? Zuk ori damu. Bada jakikiñ ezazu, nere bi anayak nik baño andi-goak zituztela. Ni etxeratu nintzan arrola-ka; Martolo lau-oñean, eta Patxi, etxera baño len erori eta kanpoan lo egiña da. Eta

gaur ere, ondo bagera, balitzake atzoko markak berdintzea.

—Bai, bai; zuei Atxur anayak izena ipiñi eizuenak, zerbait bazekien.

—Gure urrekua izango zan ura bera ere; gutxiena jota're, kirtena beñepeñ bai.

—Eta begira: bertsorik-eta bota oi dezu?

—Aspaldi adiskide
zaitut nik zu, Txomiñ,
baña nonbaiten ere
dezu ondotxo miñ;
nere edanak jartzen
bazaitu zu samiñ,
besteren ona ez da
sufritzen atsegiñ.

Begiak lausotu ta
belarriak gortu,
illia zuritu ta
ankak berriz sortu,
mamiak aitu eta
ezurak gogortu,
nere edanak kontu
etzaitzan mozkortu.

Oraiñ banua, Txomiñ,
“ariyo” esanaz,
aurrera biziko naiz
obea izanaz;

serbitzeko naukazu
prest nik al dedanaz,
batez ere ardoa
ondotxo edanaz.

III

Atxur anayak artu zuten asmoa, irureta-
tik bat nagusi jartzeko. Baña zein? Ardorik
geyen edan eta gutxien mozkortzen zana.
An ari ziran edaten, bat zagitik, bestea ku-
pelatik eta bestea bietatik.

Illuntzian, batak besteari oraturik, an zi-
joazen euskera garbia, igelen itzkuntzare-
kiñ, nasten zutela.

Ayetako bat erori zan lurrera, eta baita
beste biak ere. Gaberdian oraindik kalearen
erdian an zeuden luze-luze, ao-lurrun go-
zoa bazter danetara banatzen zutela.

Errukiturik Txomiñ, badijoa gurdi bate-
kin, artzen ditu irurak gurdian, eta badara-
maz ixill-ixillik bere sapaira.

Baziran ordea mutill ernayak errian;
“Txomiñek sartu ditu ardo-zagi batzuek kon-
trabanduan bere sapaira” zioten alkatiari
erriko ardo-guardak.

An dijoaz bada iru ardo-guarda ixillik
illunbetan Txomiñen sapaira; artzen dituz-
te beren bizkarretan, zagiak diralako us-
tean, Atxur anayetako bana, eta egunaren

sentiyen jeisten dituzte alondeian beren zagiak, alkate jaunaren aurrean. Ikustian onek zagian lekuan gizonak zirala, galdetzen diye:

—Zer dira oyek?

Ardo-guardak ezagutu zuten beren utsegi-tea, eta etzioten ezer erantzun. Baña berriz ere galdetzen du alkateak:

—Zein dira oyek?

Orduan erantzun zuten ardo-guardak:

—Oyek dira iru atxur, eta gu iru kirten. Txomiñ atzetikan dator irri-parrez, kantatuaz:

Ardo-guardak dauzkagu
gizon txit argiak,
nai nituzke iduki
jaun oyen begiak;
kontrabanduan artu
dituzte zagiak,
esaten dituztenak
badira egiak.

Orra zagi egiñak
mami ta ezurrez,
eziñ paga ditezke
ez zillar ez urrez;
norbaitek engañatu
ez banau gezurrez,
oraingoan ornitu
zerate atxurrez.

Begira nago emen
farrez ler egiten,
galdetuaz berai
ia zer darabilten;
erantzuten dirate:
Gaizki gera irten,
ona iru atxur ta
ona iru kirten.

Ur-zale batek

“Euskal-Erria”, XXIX, (1893)

Ardan-poto

—Ez, ez; ez nau ikusiko inork trabena-zulotan, gizon nagi, alper, zabar, ordi, mozkorrak bezela; etxean edango det bear aibat, eta gezurtatuko ditut erriko atso zar berritxu guziak.

—Aizan, Mari, Mari Joxepa: nor den orrela itz egiten duena?

—Nor izango den! Ardan-poto: loteria pixka bat atera zaiolako arrotua: zagi bat ardo etxeratu duelako, guziei adierazo bear diena, eta aberatsen oiturak artzeko, alkatia, erretorea eta maisua afaitara, etzi, bere eguna dalako, daramazkiana.

—Aja... ja... jai!!! Ardan-poto egon trabenara joan gabe? Lenago sinistuko niken arraiak legorrian dabilzala urtara gabe.

Etziran oraindik berrogei ta zortzi ordu igaro, eta astelen-goiz batian ikusten ziran kalian or-emen gizon eta emakumeak, mordoka-mordoka eta mormorrean, gauz andiren bat gertatzen bazan bezela.

Eta zer gertatzen zan? Esango det itz gutxitan. Ardan-poto sartu zan jai-illuntzian

trabenan, ardoz bete-bete egin zan, loak ar-
tu zuen, eta bigaramon-goizean, etxea baño
andiagoko mozkorrarekiñ, trabenatik etxera
eraman zuten bere emazteak eta semeak,
egunaren sentiyan.

—Emakume gaiztoak —esaten zuen Ar-
dan-potok—: zer ipiñi didazute emen, ja-
karen poltsikuan?

A, gizajoa! Trabena-baztarrean lo ze-
goala, arratoiak kabia egiñ eta umiak atera
zizkioten jakaren poltsikoan.

Baña au guzia al bezela erdi-estalirik, iku-
si dezagun zer gertatzen dan afaltzeko den-
boran.

Ardan-potok esan zion Papar-zabali:

—Astelenian nere eguna dek, eta etorri
adi illuntzeko zazpietako gure ate-ondora,
Kaiku eta Zai-zakurekiñ, kopla batzuek bo-
tatzera; baño ixillik, iñork jakiñ ez dezan;
eta zuentzat ere zerbait izango dek.

Afaitan astera zijoazen bada, eta erri gu-
zia zegoan Ardan-potoren ateetan, iru ko-
plariak erdian zirala, eta oek asi ziran kan-
tari:

*Ardan-potok egun bat
urtian urtian
ona emango digu
bizi dan artian.*

Aberats izatia
pobre baño obe,
diruz egiten gera
gauz askoren jabe,
baña mozkorrik eziñ
iñork ere gorde,
ardoaren aurrean
danok berdiñ gaude.

Ardan-potok egun bat...

Gizona trabenan ta
andrea zelotan,
Ardan-potori berriz
jendiak zelatan,
etziñan egoteko
trabena-zulotan,
baña bart egon zera
trabenan zu lotan.

Ardan-potok egun bat...

—Ai zer egia! —esan zuan Ardan-potok
txalo joaz—. Ori etziatok aifñ ongi ere —esan
zuan buruari eragiñaz—. Koplari eskaxen
kontuak.

—Lodien kulpak ditu
pagatutzen miak;
baña kulparik ez du
gaur emakumiak,

izatekotan dauka
arratoi emiak,
egin dizkitzulako
jakian umiak.

Ardan-potok...

Au aditzian sutu zan Ardan-poto; koplari ei bota zien leio zar bat burutik bera; itzali zuan argia, maia lurrera bota zuen, eta arrapatzen zuen guzia puskatu bearrik; erretorea, alkatia eta maisua poz ziran, nolapait ere etxetik atera ziranean ezurrak ausi gabe.

Erretoreak urrengo jayan egin zuen sermoi bat, adierazoaz ordiyekiñ zebillena, arkituko zala arrisku andian ezurrak ausi eta baraurik gelditzeko.

Alkateak agindu zuan errian, mozkortzen errazak ziranak ardo gutxi eta ur asko edateko.

Maisuak erakutsi zizkien ume guziei eskolan iru bertso ayek kalean kantatzeko.

Eta Ardan-poto ?

Ez dakit ill ala bizi dan.

Ur-zale batek

“Euskal-Erria”, XIX, (1888)

Berdintasuna

Biba igualdat

I

—Gizon premiazkoa agertu zan, zorionean, Don Anton orixe.

—Auspoak jasotzeko ala?

—Auspo-jasotzea egiten du orrek ez premia daukalako, baizik denbora-pasa.

—Debalde?

—Ori geitxo eskatzea da.

—Da esatea, etzaiola gustatzen denborarik debalde pasatzea.

—Ori ere...

—Egia: ezta ala?

—Zer baña, ta maña?

—Orrek diona da, guziok berdiñ bear gendukela, eta ez batzuek aberats eta besteak pobre.

—Zer ba? Guziak pobre ala guziak aberats?

—Erdiratsu, ez pobre ta ez aberats, baña danak ondo.

—Baña bera ondoen, e?

—Ezta; berdiñ guziak; ala esan zuan atzo

arratsaldeko mitiñian; eta... oso ederki itz egiñ zigun.

—Zer esan zuan ba, orren ondo itz egiñaz?

—Ara... gortxua're banago, egia esateko, eta enion ondo aditu.

—Zerbaitxo bada're adituko ziñon ordia.

—Aditu're bai, baña erderaz mintzatu omen zan ta...

—“Omen zan” diozu?

—Nik enuan ba ulertzen edo entenditzen, prantzes, italiano ala nola itz egiñ zuan; beñepeiñ euskeraren antzik etzuan.

—Eta alare diozu, oso ederki itz egin zizutela?

—Besteak ere ala esan zuten ta... nik ere ikusi nuan bapo ari zala ta “biba Don Anton” deadar egiñ genduan beñepeiñ.

—Ark zer esan zuan jakin gabe?

Esan zuan mitiñian
egoteko jakiñian
laster jarriko
zala erriko
jende dana berdiñian.

II

Eun bezino bazituan erriak, baña iru edo lauz gañerakoak prakazar-jendeak ziran, eta onek guziak Don Antonen aldekoak; de modo que... ¡claro!...

Don Anton, auspo-jasotzallea, praka berriak guziaz egiteko asmoetan zebillen. Nundik? Dagoen lekutik. Ondasunik asko bazan errian, eta aietzek ondo partitu, eta basta. Erdera-puntu onek grazia andia egiten zieten prakazardunai.

Don Antonek etzuan alkate izan nai, baña, izango zana izan zedilla, Don Antonen “bajo direzioan” izan bear zuan; alto direziorik etzuan nunbait oraindik azaldu nai.

Taketa, Don Antonen adiskiderik andiena, atera zan alkate. Urte-berri egunian prosesio artu bear omen zuan. Etzekian prosesio ori Santuakiñ, gurutze, intsentsu, kanta ta apaizakiñ, ala nola izango ote zan, baña zer edo zer “algún cosa” izango zan, eta pozak zegoan prosesio orretarako. (“Nork daki nerau San Alkate egingo banaute ere?”). Kotor txikiari agindu zion badezpadan ere kanturen bat ikasteko prosesiorako.

Bertatik asi zan Kotor ensaioan. Ona emen lenengo bertsoa:

Taketa alkate irten
dala, orain det jakiten,
Don Anton eta
gure Taketa
emen dauzkagu bi kirten.

Ondorengoak ere onen antzekoak ziran.

III

Urte-berri egunean, meza aurretik, bota zuan bere diskurtsua alkate berriak kontze-juan, onela:

—Jaunak: eldu da ordua, mundu guzia az-pikoaz gora jiratzekoa.

—Biba igualdat...!

—Bibaaa...!

—Gaurtik asi bear degu berdintasuna jar-zen, eta urrengo egunetan jarraituko degu.

—Bibaaa... Señor alkate!

—Organistak dauzka lau milla erreal eta auspo-jasotzalleak milla; orra nun diran bost milla; eman bekiez bakoitzari bi milla ta bosteun eta orra berdintasuna jarri.

—Bibaaa...!

—Potresto —esan zuan Don Antonek—; organistak amar urtez artu ditu lau milla erreal, eta nik ere amar urtez artu bear ditut lau milla; andik aurrera bi milla ta bosteun; ala eskatzen du berdintasunak.

Guziak ezagutu zuten arrazoia; baita on-tzat eman ere, eta abiatzera zijoazen meza nagusira. Baña esan zuan organistak:

—Nik amar urtez jo dedan bezela orga-nua, jo dezala Don Antonek beste amarrean, eta nik auspoak jasoko ditut; ala eskatzen du berdintasunak.

—Bueno —esan zuan Don Antonek (min-gañarekiñ, baña “malo” esaten zion biotzak).

IV

Asi zan meza. Organoa asi zanean, zanzarrada zala uste zuan jendeak. Belarriak itxi ta elizatik kanpora zijoazen guziak. Apaizak aldarean, alkatea aulkian, orgnista berria ta zarra kantoriakiñ koruan; besterik etzan iñor elizan gelditu. Aldareko Santuak ezta-
kit nola etzuten egis egiñ.

Don Antonek bere ezurak maite zituan, eta, osorik eramatearren, iges egiñ zuan erritik. Organistari bere enpleoa eta errenta berriro eman zizkioten, eta guziak gelditu ziran lenago bezela, ez gorago ta ez berago, dana berdin-berdin, eta segurutu zan betiko berdintasuna.

—Eta Don Anton?

—Eztakit bere herririk, baña lenengo ikusten duan lekuan, Kotorrek kantatu bear omen dio:

Zaldiarentzako silla,
astoarentzat makilla,
ustez txit abill
dan asko dabill
ondamendiaren billa.

P. M.

1905-eko Bagillaren 29-an

“Baserritarra”, n.º 20, Uztailla-ren 8-an

Ijitoak

I

Aserretxo zan Pello ijitoa, ta arrazoia're bazuan.

—Nor da Don Burduntzio (1) ori, ijitoak burugabeak dirala esateko? Laster erakutsiko diogu nork duan ohea.

II

Arrazoia? Arrazoiz betia, mundu guzia arrazoiz betetzeraño.

Nork eta Don Burduntziok bialdu bear berari jueza, etxea errekistatzera! Beorra palta bazuan, besteak ere badituzte beorrak.

Zazpi testiguren aurrean Mirandan erositako beorra; agiria etxean zeukan; eta berea izan bear zuala, Don Burduntziok esateko... zer, esateko? pentsatzeko're ausardia bear zuan. Baña dana dala; Jaungoikoa bere bidez ibilliko da.

Au guzia esaten zuan Pellok, baña arra-

(1) Prudencio. (Egillearen oarra.)

zoia zuala ere bazirudian. Don Burduntzioren beorrak eta Pellorenak bazuten elkarren antza; ama batenak izan zitezken, baña Don Burduntziorenak, buztana oso motxa zuan, eta Pellorenak berriz oso luzea, mardula eta ederra; orretxeri eskerrak.

Don Burduntziok ezagutu zuan bere utsegitea, eta Pellorekin pakeak egiteko, erosi zion berari beorra berrogei duruan.

Etzion iñork ere ukitu bear egun artan bere beor berriari; berak orraztu bear zuan; trentza eder bat zazpi larrosarekin buztanean ipiñi zion. Izena're lengoari bezela, "Linda" jarri zion.

Bazan lagunik asko begira, Don Burduntzio beorra apaintzen ari zanean. Ederra zan beorra, lengoa baño're ederragoa. Baña, baña... amurraiya! zer da au? Zaldiaren buztana bere larrosa ta guzi eskuetan gelditu etzitzaion ba? soltaturik? sol... ta... turik.

Jendeak barre egiten zuan edo ez, ezta-
kit; baña penarik etzuan beñepeñ iñork artu.

III

—Baña, Pello: zer egin diozu Don Burduntziori?

—Beorraren buztana saldu diot berrogei duruan. Ikasi dezala oraiñ ijitoak burutsuak diran ala ez.

—Beorra saldu eztiozu ba berrogei du-
ruan?

—Ez; beorra beria zuan, eta errestituzioa
egiañ nai izan diot.

—Eta zaldi-buztan ark ainbeste balio al
zuan?

—Ez, baña...

—Beraz aien errestituzioa're egiañ bearko
diozu ba?

—Bai, baña ortarako berak egiañ bear dit
beste errestituzio bat.

—Zerena?

—Nere pamarena.

—Pama kendu al dizu?

—Bai, jauna.

—Noiz ta nola?

—Jueza etxera bialdu zidanian, ni lapur-
tzat artzen ninduala.

—Eta pama ori zenbatekin ordaindu di-
teke ba?

—Ezta diruan egiteko kontua, baña pa-
keagatik larogaitxo bat durogaitik barkatuko
nikio; baña bakarrik pakeagatik, bestela ez.

—Askotxo deritzat.

—Nik ba Don Burduntzio ta bere diru
guziak baño geiago estimatzen det nere
pama.

—Dana dala: uste det jaun ori zurekin
aserre izango dala.

—Tenplatuko diogu kitarra.

—Zer esan nai dezu orrekiñ?

—Bigar edo etzi serenata bat eman bear diogula ijituok.

—Nori? Don Burduntziori?

—Burduntzio edo Burduntzi, buztana beorri al balezaio erantsi...

—Ixo: Orrela al dira orkestako bertsoak?

—Orrela ez, baizikan onela:

1/ Beorraren buztana
eskuaz oratu,
eta buztana zaio
eskuan geratu:
ijitoak zer geran
orain du probatu,
nai badu maiz eta
ondo gogoratu.

2/ Berak nai izan zuan
beorra orraztu,
eta ikusi degu
larriturik estu:
ijitoen konturik
aditu nai eztu,
baña ezingo zaio
kontu ori aztu.

3/ Orain bagoaz eta
agur, Don Burduntzi,
emazteari eman
bi milla gorantzi,
mundu ontan pakean
nai badezu bizi,
ijitoai beti
geldi-geldi utzi.

P. M.
"Baserritarra, n.º 95, Mayatzaren
23-an 1908-an

Urte-zalea

I

—Patxi; mesede bat egiñ bear didazu.

—Bai, Joxepa, bai; bat baño ezpada, lenago're amaikatxo egiñ dizkitzut eta...

—Badakizu garizuma aurrera dijoala.

—Bai, beste denbora guziak bezela.

—Pazkoazkoa egiñ bear dezu ba.

—Ondo da; baña noiz?

—Bigar bertan.

—Un...! et... et... et...

—Zer? Etetetka? Ostika bereala?

—Tira ba, tira. Guazen onetan ere.

—Esamiña egin bear degu.

—Zuk lagundu bearko didazu ba.

—Bai; jarri zaite emen.

—Jarri nadiñ ba zigarro bat artuaz.

—Jaungoikoaren legeko agintetatik asiko gera.

—Nai dezun lekutik.

—Lenengoa, Jaungoikoa gauza guzien ganiñan amatzia, kontu emen; gaitztxo egingo zaitzu au.

—Ez ba: nik ditudan gauza guziak ere ba,

zu bakarrik zera, ta, zu baño geiago amateza, ezta ba aiñ gaitz ere.

—Begira: au ezta gero jolasa.

—Ez, ez; promal.

—Bigarrena, juramentu alperrik ez egitea. Emen?

—Juramentu bai, baña alperrik ez; beti zerbaiten probetxurako; beia dala, garia dala, dirua dala, beti etxera bide.

—Birauak eta...

—Zuk ernegerazita bai; baña gañerakoan ez; oiek zure gaiñ gelditzen dira.

—Irugarrena, jai-egunak santifikatzea...

—Mezak? Entzun izan ditut.

—Jai guzietan bai?

—Bai...; iñoiz eizean edo ala utzi're bai, baña...

—Eiza lenago al da Meza baño?

—Nik eztakit ba... baña zu ere eperzaltetxo zera ta... erbiak ere nai ta... nerezat ez baña, zuretzat...

—Lugarrena, aita ta ama onratzea, eta?

—Eta zer? Ez al dakizu aita ta ama ill zitzaitan artian etzenduala nerekiñ ezkondu nai izan, zarren ondora ez etortzeagatik? Ill ziran, eta oraiñ errekiest-in-pase; aiek zeruan eta gu emen nolabait.

—Gu ere ez gaude ba inpernuan.

—Bai ordia purgatoriu.

—Bostgarrena, iñor ez illtzea... Zauritu, jo, gorrotorik?

—Ez, ez; iñoiz... badakizu... autsak astindu zure soñekoari edo...

—Bai, baña soñean daukadala.

—Bai, baña ondo-naiak ere asko eragiten du ta...

—Seigarrena...

—Ez, ez; utilikan...!

—Eztakit ba.

—Nik bai ordia.

—Begirune, txitxi putxun, jolas ta...

—Tira, tira, berriketa gutxi ta aurrera.

—Zazpigarrena, ez ostutzea. Emen begira ondo.

—Zeri?

—Neurri, pisu, prezio...

—Neurri ta gañerakoetan gora-bera batzuek bai, baña etxearen kaltekorik ez.

—Eta lagun urkoaren kaltean?

—Orixe, berak jakingo dute; nik eztakit, eta jakiñ-ezean ez dago pekaturik.

—Jokoan beti zuzen bai?

—Alako joka-lege ixillikako batzuek bai; baña ez, irabazteagatik.

—Zortzigarrena, testimonio paltsorik ez jasotzea ta gezurrik ez esatea. Gezurrik? kintalka're ez ote?

—Nik? Emakumea! Egia're gauza urriya

da, noizik bein, maiztxo're bai, baña gañerakoan ez.

—Murmuraziorik?

—Oiek atxuen kontuak dira; guk gizonak. lagun artean, gezur ta egi ta falso testimonio guziak nastean erabilli bai, baña ortik aurrera? Jaungoikuak gorde nazala!

—Bederatzigarrena, projimoaren emazterik ez deseatzea.

—Nik iñoren emazterik deseatu? Nereak ere lanik asko ematen dit.

—Bai ote?

—Bai ote diozu? Eztizut opa zerorri alarguntzerik, baña nerau alargunduko banintz, ez ninduke katiatuko munduan danek.

—Amargarrena, besteren gauzarik ez deseatzea.

—Nik deseatu iñoren gauzarik? Zertako alperrik?

—Eta arako bildots ura?

—Eziñ arrapatu izan nuan!

—Eta arrapatu bazendu?

—Orduan ez nuan deseatu bearrik.

—Beraz...

—Beraz alperrik deseatzea.

—Goazen aurrera.

—Apaltzera?

—Ez, ez.

—Zer ba? Amaikagarren aginteren bat al degu oraindik?

—Ez, baña Elizaren bostak; lenengoa igandeetan eta beste jaietan Meza entzutea.

—Berriz ere ori? Eztegu naikua, Jaungoikuaren legeko irugarren agintean esan deguna?

—Meza osua ordia, meza osua. Entzun ote dezu bakar bat ere, akaizik gabe?

—Badakizu ba, zigarrotxo bat elizako atian artu gabe...?

—Bai, ta gero beste bat, kontu-kontari, barrez, eta, onik onenean, Santusean gero barrura.

—Ez ordia beti.

—Ez alegia; iñoiz sartu gabe gelditu're bai, eta zenbait aldiz, denboraz, sermoian kanpora.

—Sermoiak? Etxekoak baño oberik...

—Bigarrena ta irugarrena, arrastaka bada're pasa.

—Baita; aurrera.

—Laugarrena, Ama Eliza Santak agintzen duanian baratzia.

—Agintzen eztuanian ere egiñ biar izaten degu nai baño geiagotan.

—Bai betekadaren baten ondorian, baña Elizak agintzen duan egunetan?

—Ez al dakizu sendakiñak (medikuak) zer esan zidan?

—Bai, nola konpesatu ala asolbitu. Zuk esan zure erara, ta ark ere bai zuk nai be-

zela. Etzizun esan zigarrorik ez artzeko're?

—Bai, baña nola bizi nindeke ori gabe? Sendakiñak ere eztira Espiritu Santuak.

—Bostgarrena, amarrenak eta primiziak pagatzea.

—Orixe enekian. Beste modu batera zala uste nuan.

—Nola ba? Zorrak ukatu ta artzekoak ko-bratu; errosarioak saldu ta kartak erosi, ta Jaungoikoaren grazian bizi.

—Oraiñ...

—Oraiñ aparia.

—Oraindik badegu zerbait geiago esami-ñatu bearra.

—Baña zer? Aurtengo naikua eztegu?

—Naikua bearko.

—Bai, emakumea, bai; urdallak iya beia jo dit eta.

II

Bigaramon goizean:

—Patxi, bostak jo dute; jaiki, badakizu nora juan bear degun.

—Lo gutxitxo egin det baña...

—Zer izan dezu? Burutazioren batzuek?

—Bai ba; pentsatzen egon naiz, berdiñ litzakeala zuk nere pekatuak konpesatzea, nik baño obeki dakizkizu-ta.

—Ez, ez; jaiki ta elizara juan bear degu.

—Eta zer egin bear det edo nola konpesatuko naiz?

—Ara; ni juango naiz aurretik, eta nik egiten dedana, zuk ere egiñ ezazu.

—Ondo da.

III

Joxepa, bere senarra albian zuala, oso pozik zijoan elizara; etzion inbidiarik erregeri ere...

Gauza batek ematen zion buru-auste pixka bat Patxiri. Emakumeak albotik konpesatzen ziran eta gizasemeak aurrez aurre. Pekatuak esatea, albotik ere naikua astun zan, baña aurrez aurre esatea gogorregi iduritzen zitzaion. Naiago zukean aririk gogorrenarekin topeka ari, pekatuak aurrez aurre esaten baño. “Nik egiten dedana egiñ ezazu zuk ere” esan zion bere emazteak.

Joxepa konpesatu zan albotik eta Patxi ere ala egiteko asmoan zijoan; baña ez; emazteak kiñu egin zion aurretik juateko. An ziran estuasunak; izerdi larri-larria're asi zitzaion arpegian. “Dana dala —esan zuan—, urkamendira dijoana're badijoa ta...”

Konpesorearen oñetan jarri zanean:

—Jauna, —esan zion—, asoluzio santua nai nuke.

—Eta konpesioa? —erantzun zion konpesoreak.

—Ni naiz, nere aurretik konpesatu dan emakume onen senarra; nik esan al neza-kean guzia, nik baño obeki orrek esango ziona badakit —esan zion Patxik...

Konpesatu ta komulgatu ondorian, atera ziran elizatik senar-emazteak eta bazijoazen etxeruntz.

Patxik uste zuan, kendu zitzaiola aspal-dian bere gañian zeraman arri astun bat, eta guziz alai zijoan; iduritzen zitzaion, emezortzi urte baño geiago etzituala.

—Gaurkoa baño egun oberik neretzat ez-tala izan uste det nere bizi guzian. Onelako egunak beti iraun bear lukete —esan zuan Patxik.

—A gizajoa! —erantzun zion emazteak—; zure eskuan dauzkatzu onelako egunak; zergatik etzera sarri sarri konpesatu ta komul-gatzen?

—Emendik aurrera egingo naiz.

—Bai; ala esan izan dezu lengo urteetan ere; baña gero luzapen eta nagitasunezko deabrutxoren batek arrapatzen zaitu, ta badakizu...

—Baña emendik aurrera eztet aditu naiko,

ainbeste aldiz esan didazun, eta gaur oso lotsatzen nauan izena.

—Zer izen da ba ori?

—Urte-zalea.

P. M.

“Baserritarra”, n.º 126-7, 1909-ko
Uztaillaren 31-an ta Agostuaren
14-an

Ijito baten suertia

I

Aritxulegiko mendi gañian barruan dijoaz bi ijito izketan:

—Aizazu, Patxiku.

—Zer nai dezu, Mikolex?

—Or dabiltzan bi zaldi koxkor oiek elitzazkigu ba gaizki etorriko.

—Ez; illea puxkatxo bat moztu, jaten ondotoxo eman, apurtxo bat biribildu, eta Santa Luzietan Millaerreal Zumarragako perietarako moldatu litezke.

—Bai, ezagutuko ezpaginduzkete gutai-koak gerala.

—Eztago orrelako beldurrik; geron buruak erdaldun egiñ eta... *adelante*.

—Ordia, erderaz oso motx nago ni beñepeiñ.

—Izango dira an euskeraz motx daudenak ere, baña eztira ixillik egongo euskaldun erderaz eztakitenekin ere; eta ala, batzuek euskaldun erdalzale, eta besteak er-

daldun euskalzale, guziok egingo degu mordollo bat, eta entendituko gera.

—Korriente; zuria da arrazoia, Mikolex.

II

Edo ta kontuak etzituzten ondo atera, edo ta kukuak oker jo zien; beñepeiñ Mikolex, amabost egun barru, kartzelan zegoan.

—Baña, Mikolex: oraiñ ere kartzelan?

—Bai, *kuñao* maitia; bai.

—Baña zergatik?

—Mesede bat egiteagatik.

—Nik sinistu ori.

—*Pues, señor*: Aritxulegi gañian arkitu nuan *malamuerteko* zaldi bat, errukitu nintzan, amar egunian jaten eman diot, loditu det, oraiñ agertu da aren jabetzakoa, eta kendu dit.

—Emango zizun ordia *propiña*.

—Bai, lau makillakada eta gañera juezak emango didana.

—Bai, bai. Ondo egiñaren pagua, ate ostian palua.

—Ai zer egia esan zuan ori esan zuanak!

—Ba iduki ezazu gogoan, eta baita beste au ere: *kaballo de mal muerte, dueño makilla puerta, a Mikolex mal suerte*

—Bai, *kuñao* maitia, bai; eta etorri zaite,

bigar juezaren aurrean, nik zer esaten dedan aditzera.

—Ondo da, eta agur.

—Agur, bigar arte.

III

—Nola dezu izena?

—Urrepiño (1).

—Izen ederra.

—Bai, jauna; beraren jabe banintz, ez nikie idukiko juezai, gaur daukakiedan ainbat beldur

—Ez ote?

—Ez, jauna; zazpi arrua banaiz; eta guzia urre piña banintz, begi argia... *bamos... entendido.*

—Izen asko al dituzu?

—Bai, jauna; alkandorak baño geiago.

—Zenbat alkandora dituzu ba?

—Bat bakarra.

—Gutxi da. Dozen erditxo bat bear ditu gizonak.

—Eta aldian zenbat jantzi?

—Aldian... bat.

—Orretarako bat naikua da.

—Eta aldatu bear danian?

—Bat jantzi, urratu arte ibilli, eta gero

(1) Rufino. (Egillearen oarra.)

berri bat erosi, berriz ere urratu arte, eta onelaxe... *akabo...*

—Zuk lenago Nikolas zenduan izena.

—Bai, jauna; eta lenago Mitxel, eta lenago Pilipe.

—Zergatik mudatzen dituzu ba?

—Kartzelatik ateratzen geran bakoitzian mudatzen degu izena.

—Baña zergatik?

—Kondutagatik.

—Nola da ori?

—Ara, jauna: neretzat izango litzake *desonra* iñork esatea: “Urrepiño kartzelan egon da”. Baña kartzelatik ateratzean eta Eugen izen artu, ez naiz ni orduan Urrepiño, eta Eugenegatik eziñ iñork esango du egiaz kartzelan egon danik.

—Ez ote da Eugenic kartzelan egon?

—Beste Eugen en bat baliteke, baña ni ez.

—Utzi degiogun oni. Nola dezu izengoiti edo apellidua?

—Etxeberria.

—Ola, ola! Etxeberriatarra zera?

—Bai, jauna, bai. Etxeberririk eztegu baña...

—Zarrik?

—Aiñ gutxi.

—Beraz izenak bakarrik.

—Bai, jauna; guk izenak, eta berok gizenak.

—Guazen oraiñ beste gauza batera.

—Baita bitara ere nai badu.

—*Konke*, egia da?

—Eztakit, jauna, *konke*-ren berririk.

—Egia da, zaldi bat ostu dezuna?

—Ez, jauna; nik egin dedana da *obra miserikordiazko* bat.

—Zein da?

—Goseaz dagoanari jaten ematea; ala, mantendu det amar egunian iñoren zaldia.

—Bada nik oraiñ zurekiñ egingo det beste *obra miserikordiazko* bat.

—Zein da?

—Peregrinoari ostatu ematea.

—Ez naiz ni, ordea, pelegriñoa.

—Zergatik ez?

—Eztaukadalako nik txirla andirik eta ez txikirik lepuan.

—Baña bai barruan kontxa andiak eta asko.

IV

Urrepiñok kartzelan etzirudian ar andirik zeukanik, bada, jan ta lo ondo egiten zuan; kantatu, berriz, ara nola:

Geron etxerik ezpadegu're
ezin gindezke estutu,
jauregi andi ta ederretan
ematen zaigu ostatu,

jan ta edana nai bezelaxe,
arditikan ez kastatu,
bizi-modu au erregeri're
nai ta ez bear gustatu.

Lau illabeten buruan atera zan kartzela-
tik.

Zer egiñ ote zuan bere lagun Patxikuk
beste zaldiarekiñ? Aditu zuan, ostu zuan bi-
garamonian, jabeak kendu ziola. Ara nun,
ustez ustegabe, alkar topatzen duten biak.

—Ola, Patxiku.

—Kaixio, Mikolex.

—Zaldia ondotxo saldu zenduan?

—Ala ala ba; *kostaprezioa* eragiñ nion ba-
karrik.

—Geiago ez?

—Ez; peria kaskartxoia izan zan ta.

—Anbat gaiztoago.

—Zuk zerea —edo jabearena... *bamos*...—
ondo saldu zenduan?

—Bai, eragiñ nion *kostaprezioa* eta gañera
lau illabeteko jan-edana ta etxia libre.

—Milla arraia!!!

—Orixe da gizonaren suertia!!!

1903 Otsaillaren 22-an

“Ibaizabal”, 61, 1903-ko
Epailla-ren 1-n

Santiren jakinduria

I

Tan... tan... tan... taparra tan tan...

—Nor da ate ondoan?

—Ni, Santi; egiñ beza mesede atea idikitzeaz, On Juan.

—Aitor, Santi, eta eseri adi, mutill; baña zer gertatzen zaik, gabeko amar t'erdietan etxe onetara etortzeko?

—Arriturik nator, gizona, bedorri esatera oraindaño sinistu eztedan gauza bat, baña gaur sinistu dedana.

—Esan zak bada zerbait.

—Eziñ ordea oroitu izenaz, antziñako Gariabe edo Galale edo Gallegio edo... eziñ oroitu naiz. Eztaki bedorrek nola esaten zuan gizon jakintsua zala, lurra zebillela erakusten zualako, eta nola guk barre egiten genduan?

—Ai arrayia! Ik esan nai diana Galileo dek.

—Juxtu, On Juan, orixe eta bera. Nik baño buru ohea du bedorrek eta bear ere bai.

—Eta zer dakarrek ba gaur Galileo-rekin?

—Ark arrazoia zuala uste det, bada lurra dabillega, nola dabillen ezpadakit ere, sinisten det gaur, eta ara zergatik. Goizean perira Tolosara jua ta...

—Eta zer? Tolosa etzegoan betiko lekuan?

—Bai, jauna, bai; eta gelditu ere bertan egin da, baña beste gauza batek oso arriturik utzi nau.

—Zerk arritu au ba orrela?

—Ara, jauna; aruntzakoan eskuitik zeuden etxe guziak, onuntzakoan ezkerretik zeuden, eta nunbait, ni Tolosan naizen bitartian, egiñ da aldaera ori. Esan det bada gaur: Oraintxe sinisten diat lurra dabillega, eta antziñako Galaliok arrazoia zubela.

—Ai astaputza! Oker bidetik ibilliko intzan.

—Ez, jauna, ez; goiko bidetik jua ta goiko bidetik etorri, aurrera begira beti ibilli, eta beti zuzen ni, baña lurra ez.

—Beraz paperetan ipintzeko kontua dek ori.

—Bai, jauna, eta ipiñi beza gazetan.

—Ipiñiko diat gazetan, gizonik eztagoala ire galtzetan.

—On Jua, ez beza barrerik egiñ, bestela kontu, bada gizon baten lekuan bi ere bagaude ta. Baña ezagutzen det Galaliok buru ona zuala.

—Bai, Santik baño obia.

—Ai beza: Galalio eguzkia bazan, ni naiz illargia.

—Buru utsean agoanian.

—Ori da gauzak ondo entenditzea; bekar hosteku ori!

II

—Goiz dabill, On Juan. Ondo lo egiñ du?

—Zer lo egingo nuan! Zuen Santi etorri zitzaidan bart amar t'erdietan, eta goiz arte an egondu da itz-ontzi bat bezela, ixildu gabe, gaberdi aldean loak artu zuan arte, sukaldeko aulkian eserita.

—Ainbeste esakizun zeukan?

—Bai, emakumea; pillosopo egiñik dago.

—Pillosopo? Milla sopa esan beza. Gaur goizean sartu da etxean, dana bustia, zapata gabe eta buru utsean, "gabon" esanaz.

—Bart amar aldiz atera zuan bere erlojua, eta beti iya zazpirak ziran. Goizean esnatzean bost-bostetan atera du berriz, eta nola geldi zeukan, orduan ere iya zazpirak ziran eta esan digu: "Apal-ordua degu eta banua atsua zai egon eztediñ".

—Bai, jauna. Gure etxean gizonaren antzik geiena duana, badaki zer dan? Galtzak, bada galtzetan dabillanak antzik ere ez du gizonarenik. Gosaria aparitzat janta, eguna

zabaltzean, illuntzia dalakoan, juan zaigu oera Santi gurea.

III

Igande eguerdi-ostean esnatzen da Santi gurea, eta sumatzean eguzkiaren argia leioaren zirrikitutik, "illargi ederra zio" esanik, berriz ere lotaratu zan. Astelen goizean, igandea zalakoan, jaikitzen da lo gutxi egiñ eta gaba luze joan zaiola esanaz.

—Jesusa, zapatak ekarritzatzu, mezatara jua nadiñ.

—Gizona! Mezatara gaur? Zer Jaungoikoaren bendizio degu?

—Emakumea! Meza osoa jaian entzutea kristauaren egitekoa ez da?

—Bai, gizona, eta jai osoa oian igarotzea meza osoa elizan utzita, izan bear du ordiyarena, eta zapatak lokatz artean eta txapela sagar-adarrean galdurik etxeratzea, mozkorrarena. Entenditzen?

Konturatu zan Santi bere utsegiteaz, baña disimulatuaz, esan zuan:

—Bai, emakumea! Aurten bisestu urtia da, eta nik esaten dedana ez da besterik, baik, zertarako bear duan urte orrek besteak baño egun bat geiago. Beragatik, nik urte au besteakiñ berdintzeko, egun bat kendu diot lotan.

—Bai, pillosopo egiñ zifian eta Galaliokiñ berdindu zera noski.

Emen beldurtu zan Santi, emazteak trapuren batzuek aterako ote zizkan eta ixilerazo zuan esanaz:

—Nere pekatuak konpesatzen badituzu, aien penitentzia ere egiñ bearko dezu. Ikusten au? Ezagutzen? (Korosti-makilla bat erakutsiaz).

IV

Zortzi egunez itzik egiñ gabe egon ziran senar-emazteak, eta pozik zegoan Santi ifiork bere pekaturik arpegira ematen etzionean, baña sartzen da illuntzi batean trabenan eta, zerrepeldurik, asi zan arrokeriak botatzen eta Korkoxarekin bertsoetan era onetan:

Santik:

Batzuek ikasleak,
besteak maisuak,
munduban bagaude bai
gizon jakintsuak,
sinistu-ezagatik
egiak auzuak,
argituko dizkiek
... .. (1)

(1) Puntu au falta da “Baserritarra” aldizkarian.

Korkoxak:

Guk ere nai genduke
zerbait ikastia,
baña ez iñola're
zuk erakustia,
zure jakinduria
ezta garestia,
pitxar bat ardorekiñ
egiña guztia.

Santik:

Beti bizi aiz iñor
ikusi eziñaz
eta nintzaz mintzatzen
izkuntza samiñaz;
jakindurizko gauzak
nik oraiñ egiñaz
mundua juango dek
nor naizen jakiñaz.

Korkoxak:

Zapatak ta txapela
bideetan galdu,
gaba dalako ustez
goizean apaldu,
orlako jakintsuak
nunbait bear al du
bere jakinduria
munduan azaldu.

Santik:

Korkoxa beti korkox,
sekula gizon ez,
mintzatutzen eztakik
beñere itz onez,
iñun eztek arkitzen,
jentiak dionez,
i berdintzekorikan
gizatxartasunez.

Korkoxak:

Zugan bi gizon zaizkit
iñoiz iduritzen,
zure jakinduriak
oso nau arritzen,
orain mundua dala
diozu ibiltzen,
ez da galtza danetan
gizona arkitzen.

—Aizak, Korkoxa, kontu egiok bizkarre-
ko malet orri, galdu gabe.

—Aizazu, Santi, txapela galduagatik bizi-
ko zera, bada bururik eztunak eztu bear txa-
pelik; baña kontu galtzai, bada oiek galtzen
badituzu, ezta geldituko gizonaren antzik ere
zure etxean, eta Jesusa gaixoak, alargundu-
rik, zer egingo du?

—Bai, bai, gizatxarrak beti gizatxarkeriak.
Agur, Koxkor.

—Ankak bai ta bururik ez, galtzak bai
ta gizonik ez. Agur, Santi. Noiz arte?

P. M.

“Baserritarra”, n.º 38, Martxua-ren
17-an 1906-an

Iñudiari

1/ Nere Mari Prantxiska,
iru urte dira,
ipiñi ninduzula
aora begira;
zure gezur guztiak
granadak balira,
beste ainbeste eziñ
artillerok tira.

2/ Iñude jua artian
izan ziñan larri,
ni tontua izan da
baita zuk igarri;
“ondo izango gera”
esan ziñan sarri,
bizi guziko petxa
dirazu ezarri.

3/ Bizitu naiz eta ez
denbora gutxian
umeekiñ lan asko
egiñez etxian;
andria pasiatzen
ederki kotxian,
pena andirik gabe
bere biotzian.

4/ Utzirik gizona ta
aurtxo aingeruak,
nai dizute señora
ta kaballeruak;
ai gizon tonto eta
emazte eruak,
atsekaberik bada
nork ditu erruak?

5/ Madril-tikan etxera
makiña bat pitxi
ekarri dezu, baiña
gauza onik gutxi;
kofria zazpi giltzez
dezulako itxi,
lapur-beldur zeranik
ez diot eretxi.

- 6/ **Beti esaten zifian,
andretxo neria,
iñude ez juatia
zala tonteria;
ekartzeko zenduan
onuntz loteria,
baiño ageri dana
da arloteria.**
- 7/ **Bederatziak jota
oetikan jaiki,
orraztu ta apaintzen
txit poliki daki;
janari piñen zale
badator egoki,
txurrun panpliña berriz
oraindik obeki.**
- 8/ **Baztarturik an dauzka
goru ta ardatza,
gubernatzeko diot
esaten baratza;
atxurraren kirtena
omen dago latza,
etxea goratzeko
ai zer esperantza!**

9/ Ez diot ukatuko
bere merezia,
apaintzeko kontuan
badauka grazia;
atzetik arrastaka
soñeko luzia,
berarekiñ garbitzen
du kale guzia.

10/ Ixillik saltzen dizkit
arto ta gariak,
kostatzen zaizkit orren
gose-egarriak;
lana du ezkonduak
duten uztarriak,
amaika irinsten du
bere eztarriak.

11/ Jate-orduan beti da
zintzo eta zurra,
beretzat mamia ta
neretzat ezurra;
ixildu ere gabe
dario gezurra,
egunero lituke
merezi bi zurra.

12/ Artorik eziñ jan ta
bear du ogia,
ori neretzat ere
litzake obia;
“ago ixillik, tonto,
lotsarik gabia”
esan, eta ematen dit
arto motz lodia.

13/ Gauza guziak dakar
etxera zorretan,
oso saiatua da
lan-bide orretan;
pagatuko badira
ni beti lorretan,
etzaitezte fiatu
andre ederretan.

14/ Baldin ezkondu bear
banintz ni berriro,
bearko luke egon
denbora txit giro;
nere iritzia det
esango argiro,
onelakoak ditu
merezi lau tiro.

15/ Ez nituzke egiñ nai
alperrik kantuak,
gizonak, etzaitzte
izan aiñ tontuak;
neri begiratu ta
atera kontuak,
bada arpegi beltza
du eskarmentuak.

*Iñude juan ezker
kanpora andriak,
espero bitez gero
loteri aundiak.*

“Argia”

Ijitoak Pazkoakoan

I

—Seme: pazkoakoa ere badator ba.

—Bai, aita, bai; ez nago aztuta. Orixe ere ipini zuten ta...

—Bai, seme; ipini zuten, eta ondo dator-kigu.

—Zertarako?

—Gure konduta onerako.

—Bai zazpigarren mandamenturik ezpa-litz.

—Ezagun da, seme, gaztea zerana.

—Zergatik ba?

—Zazpigarren mandamentu orixe da guri oso konbeni zaiguna.

—Gordetzeko?... Ala...

—Gordetzalleak eta ausitzalleak, danak bear dira munduan.

—Zer mesede egiten digu guri mandamentu orrek?

—Besteren morraletik ogia jateko bidea libre uztia.

—Eztigu ba berak eragozten ori?

—Batzuei bai; eta orregatik uzten digute bidea libre besteoi.

—Zeiñ dira ba batzuek eta zeññ besteak?

—Gordetzalleak eta ausitzalleak.

—Eta zeññ dira gordetzalleak eta zeññ ausitzalleak?

—Eztakit argiro esateko, baña ijitoen artean gordetzallerik eztana jakiñ bear zenduke; eta bestela kanta zadazu gure dotriñaren lenengo artikuloa.

—Arrapatu al bada
ez iñola utzi,
baiña arrapatuari
ongo gero eutsi;
arrapa eziñ danaz
ez beñere etsi,
gaur ta bigar ezpada,
izango da etzi.

—Eta, ori orrela jakinta ere, *esprukoloe-tan* zaude?

—Arrazoa daukazu, aita; arrazoi andia daukazu.

—Zazpigarren mandamentu orrek eragoztziko ezpalu iñoren morraletik ogia jatea, gu baño aurreragokorik izango litzake lanbide orretan.

—Ori orrela da, baña *konpesioak* ematen ditu gero lanak.

—Oraindik orretan zaude? Bere-berialaxe

kanta ezazu *konfesioaren* gañian irakutsi dizugun dotriña; bestela ona emen makilla eta kontu gero nerekin!

—Gauzai bear zaizte
izenak trukatu,
gezurrik esan gabe
egia ukatu;
kontu danak esaten
etzaite nekatu,
berriketa gutxi ta
agudo bukatu.

—Ori jakinta, *konfesatzeko* beldur zera?

—Asko galdetzen dute ta...

—Zoaz Prai Jose zarragana; euskal gaizto itz egiten du, ta errez pasako zera.

—Eta gaztaerik?

—Zer? Oraiñ sei illabete jantako gaztaiak? Aitatzea ere!... Berriketak zertako?

—Bildotsik?

—Bai; esaiozu nola arrapatu nai izan zenuan, baña iges egiñ zizula.

II

—Zenbat denbora da *konpesatu* ziñala?

—Askotxo, jauna.

—Urte bete bai?

—Urte bete... e... e... sendotxo.

—Zenbat urte dira ba?

—Orain bi urte kunplitu ziran iru, lenago *konpesatu* nintzala.

—Beraz, bost urte.

—Or nunbait.

—Oiek eztira asko, baizik askoren erdiak.

—Bai, jauna; argatik esan diot ba “askotxo”.

—Ezer ostu dezu?

—Bildots bat ostu nai izan nuan, baña eziñ ostu, eta utzi egiñ nion.

—Utzi... utzi... zuk ari, ala ark zuri?

—Biok alkarri.

—Pekatu egiñ zenduan ba *deseoz* bada're.

—Izan diteke, jauna.

—Damu dezu?

—Bai, jauna, bai damutxo're, ainbeste neke artuta alperrik izan bearra.

—Baña damu dezu, *deseoz* pekatu egiña?

—Izango eztet ba bildotsaren lekuan pekatuarekiñ gelditzea? Naiago nukean nik bildotsa, milla pekatu baño.

—Baña zer dezu damu? Pekatu egiña ala bildots gabe gelditzea?

—Biak, jauna, biak.

—Eta bildotsa arrapatu izan bazenduan?

—Orduan pekatua bakarrik damuko nuan, baña biak damu ditut. Baleki bedorrek, nik bezela, zenbat kostatzen dan...

—Ixo, ixo...

- Eta gero kartzela ta pama ta...
 —Ixo, *basta... basta...*
 —Esamesanak eta lotsa ta...
 —*Basta... basta... basta...*
 —Bastarik eztet, jauna, ostu; amar peze-
 tan erosi nion Txilibistro mandazaiari.
 —*Basta ya, basta ya.*
 —A!... Gaztaia ba... gaztaia... esango diot
 egi-egia. Bi ditut ba ostuak, eta jan egiñ ni-
 tuan, ta eztakit ba, jauna...

Sakristau zarrak esan zuan zirriparra an-
 diak ibili zituztela Prai Jose zarrak eta
 ijito txikiak; konfesonarioa an zebillela bin-
 bili-bonbolo, noiz eroriko; eta eztakigu nola
 konpondu ziran.

III

- Seme: zer moduz konpondu zera prai-
 llearekin?
 —Estutxo artu nau.
 —Zer izan da ba?
 —Zorioneko gaztaiak...
 —Eta ori ere esan egiñ diozu? Zedorrek
 dituzu *kulpak* estu artu bazaitu. Etzendukan
 ez esatea baño; ez izan berritxu; *puera be-
 rriketas.*
 —Nik esan gabe igarri dit; “*no entender*”
 egiñ nai nion, bafia eztit balio izan.

—Zergatik ez?

—Eztakit ba: asi da bere *basta* ta *basta*-rekiñ, eta nik esaten nuan nere artean: gazta esan nai dek, baña *nones*.

—Eta gero?

—Berriz ere *basta* ta *basta*; orduantxe esan diot, *basta* mandazai bati erosi niola.

—Eta eztizu sinistu?

—Bai zera! Berriz asi ta *bastaia... bastaia*; nonbait gaztaia esan nai zuan, obeki adieraztiagatik, eta orduantxe aitortu diot, beñ edo beñ ixilltzeagatik.

—Eta gero?

—An ibili gera nolabaitxo.

—Eta azkenik?

—Ura berearekiñ eta ni nerearekiñ.

—Beñepeñ *konpesatu* zera, ta aurrera-koan bizitza on bat egiñ bear dezu.

—Bai, aita, bai; egon zindezke ardura gabe.

—Badakizu nola?

—Bai; oraindik oroitzen naiz, zuk erakutsiaz.

—Ia nola esaten dezun ba?

—Batek esango dizu
dala senidea,
eta besteak berriz:
“Naiz zure aidea”;

zu izan zaite beti
danen aiskidea,
eta gauzari eman
etxera-bidea.

—Ori, ori, nere semea! Ori egiten badezu,
eztezu izango Prai Joseren beldurrik.

—Len ere, ari baño, zure makillari bel-
dur geiago izan diot.

1903-ko Jorraillaren 20-an

“Ibaizabal”, 69, 1903-ko
Jorrailla-ren 26-n

Mallulariak

I

—Santi: zapatari oiek onak dira?

—On samarrak izan bear dute.

—Jakintsuak ere bai?

—Jakintsu samarrak ere...

—Samar askotxo dago or gauz onik izateko.

—Ba, garbi esateko, jakintsu-otsekoak dira.

—Otsa ta utsa, eztira alkarren lotsa.

—Oiek ere, orretantxe, au da, alkarren lotsa eztira izango.

—Kendu itzatzu samarrak, otsak eta utsak; esan zadazu argiro: onak eta jakintsuak dira?

—Bai... Nai dezu garbiroago esatea?

—Jakintsuak izateko eztaukate ba opizio gañ-gañekoa ere.

—Bakoitza bere opizioan jakinttua izan ezkerro, zertako geiago?

—Zapata onak egiten dituzte?

—Bai; burnizko perrak beziñ gogorrak.

—Zergatik ba, alaiña?

—Gizon askori jeixten omen zaie jakinduria orporaño, eta, zapata zartxoak badi-tuzte, bereala kanporatzen omen zaie, eta gero Santa Agedara eraman bear; an berriz kontuak dira ta...

—Oraifitxe ikusten det gizon oiek jakintsu samarrak dirala.

—*Puera samarres; abluste limpio.*

—Arrazoia dezu; neronek orixe esan di-zut len ta...

—Salamankan izanak dira beñepeñ biak ere gaztetan ta...

—Ikasten?

—Bai; eta ikasiaren ikasiz buruak astundu, jakinduri guzia orpora jetxi, zapatak ere zartxoak, zulodunak iduki, eta guziak iges egiñ omen zien.

—Jakinduririk batere gelditu gabe?

—Bai; bakar-bakarrik *lustrazio* (1) apurtxo bat gelditu omen zitzaien.

—A! Orregatik zapatari egingo ziran; *lustriatzen* jakin ezkerro, zapatariak asko dauka aurreratua ta...

—Bai nunbait. *Lustrazio* orrek iru gauza omen ditu *printzipalmente*.

—Zeifñ ote dira ba?

—Bat da *biba libertat*, eta beste biak aztu omen zaizte.

(1) Ilustrazioa. (Egillearen oarra.)

—Beraz ori bakarrik ekarri dute Salaman-
katik.

—Orixe bakar-bakarrik; beste biak...

—Orpotik iges egiñ, ala... zer?

—Ez ba; mingañaren punta-puntan omen
dauzkate, baña eziñ ondo oroitu.

—Begirozu ba, *biba libertat* ere mingañaren
punta-puntan ez ote daukaten.

—Bai zera! Orretan oso gogor daude, eta
alkar errespetatzen dute.

—Ori ondo ba, ori ondo.

II

Bi zapatariak ziran Kalix eta Pelix, etxe
baten, bizitza banatan, bizi ziranak.

Astelen goiz baten, beste askotan bezela,
lustrazioa bazebillen Kalixen buruan. Glo-
buak nola ibilli arian, asmatzen zebillen.

Iñork ikusi etzezan, bestek arrapatu etze-
ion *imintzioko pribilejioa*, bere etxian egiñ
nai izan zuan lenengo saialdia. Su artu zuan
globuak, erre zan, eta goiko bizitzara kia
ugari eldu zan. Asarraturik Pelix, bazeto-
rren beeko bizitzara, makilla batekiñ, Ka-
lix astintzeko ustian, baña bereala onek esan
zion:

—*Biba libertat!* Bakoitzak bere etxean
nai duana egiten du.

Biurtu zan Pelix ixill eta umill bere bizitzara, eta gogoratu zitzaion, nola berak irakurri zuan paper batian, Parisko *exposizioan* itxasoa jarri zutela, eta saiatu bear zuala berak ere etxean jartzen ote zuan.

Emazte gaixoari ekarri erazi zion errekatik al zuan ur guzia, eta bota erazi ere bai etxeko gizategi edo salan, eta Pelix asi zan kafiaberarekin arrantzan. Ura bazijoan goitik beera, Kalix oian zegoanaren aora.

—Zer? —esan zuan Kalixek—. Ardoa izan balitz ere... baña... ura?

Bazijoan Pelixi errietan ematera gora, baña:

—Ixo —esan zion Pelixek— arraiak izutu ta iges egiñ eztezaten. *Biba libertat!* Ba koitzak bere etxean nai duana egiten du.

Etxe guzia, ur ta ke, *libertadex* betea zegoan, baña pakea andik kanpora zebillen, eta juezak parte artu bear izan zuan.

III

—Zer dio Kalixek?

—Ara ba, juez jauna: Pelixek, goitik be-
ra, urez busti nau.

—Zer dio ba Pelixek?

—Ara ba, jauna: Kalixek, betik gora, kiaz
ia ito nau.

- Egia da, Kalix, Pelixek dioana?
- Bai, jauna; *ebanjelioa*.
- Pelix: egia da Kalixek esan duana?
- Bai, jauna; egi *berdaderoa*.
- Zergatik egiñ diozu ba ori zuk, Kalix?
- Zergatik! Zergatik? *Biba libertat-gatik*.
- Eta zuk, Pelix?
- Biba libertat-gatik* nik ere.
- Ba oraiñ ikasi ezazute *biba igualdat* ere.
- Aarraie, arraia! Orra guk mingañaren puntan gendukana eta gogoratu eziñ gendukana.
- Bota ba oraiñ hostna pezeta eta zoazte, eta urrengorako ikasi *biba paternidat* ere.
- Millamontriena! Garestitxo atera zai-guk *biba libertat* orixe, baña *biba paternidat* ere gogora erazi zigutek eta... *buenprotxo*.

IV

Andik aurrerako eztabaidak erabakitzen zituzten *biba paternidat*-ekin, au da, ukabilka. Astelen guzietan zegoan *komeria*. Mallulariak deitzen zioten jendiak, eta mallularien *komeria* ikusi nai zuanak, etzeukan dirurik eman bearrik; asko zuan esatea Pelloren ardantegian "*biba Pelix*"; laster

erantzungo zuan Kalixek "*biba praternidat*";
eta asiko ziran malluetan, au da ukabillka.

Astelen batian, malluetan ari zirala, kantatu zien Korkiñek:

Ondo bustirik daude
beren eztarriak,
bereala ez ditu
illko egarriak;
lanerako dituzte
indar ugariak,
ederki ari dira
bi mallulariak.

1903-ko Epaillaren 23-an

"Ibaizabal", 65, 1903-ko
Epailla-ren 29-n

Pareja polita

I

—Prantxiska: bai al zatoz aza saltzera?

—Bai, berealaxe nator; zaude puskatxo bat.

—Obeko degu lenengo baraua ausi.

—Bai, geron buruak ditugu lenengo.

—Pattar ederra Berritxurenian omen dago.

—Guazen ba ara ere, bidia badakigu-ta.

—Bai, eztegu lenengo aldia, ta ez dedilla izan azkenengoa ere.

Eztarri legortuak

bear du bustia...

Berritxuk dauka dendan

sendagai guztia.

II

—Badakizu, Prantxiska, pattar onek indar gutxitxo daukala?

—Baita alaxe uste det ba nik ere.

—Geixeago edan bearko degu.

—Bearko? Bai, noski; amabiak eztira be-reala etorriko.

—Bai, gu etxeratu orduko, ordu bata're alde-aldian izango da.

—Eta, gure lapikon onduetan ezer gelditzen bada're, ezta izango gañ-gañekoa.

—Obe genduke zer edo zertxo artu, plazara baño len.

—Arrautza bana baderitzazu baso-erditxo banarekin?

—Bai, alegia; geron buruak ditugu lenengo.

—Baita bigarrenko, irugarrenko, laugarrenko eta geiagarrenko ere.

Arrautza ta arrautzak, baso-erditxo ta baso-erditxuak, bat, bi, iru, lau eta geiago, eta ala beste zerbaitxo ere. Etzuten izan plazara juan bearrik azak saltzeko.

Gosaria pagatzeko lañ eta zentimo batzuek geiago zan azen balioa. Zentimo aiek propiñatzat utzi ta abiatu ziran etxeruntz, adiskide zar eta kontuak garbi (poltsa garbiago) gelditzen zirala.

Eztakigu iritxi
zuten jatordurik,
baña etzeramaten
lapurren bildurrik.

III

Saskiak utsik, poltsak ere bai, baña sabelak ondo beteta, abiatu ziran etxeruntz.

—Bai al dakizu, Prantxiska, zer daukadan goguan?

—Zer ba, Iñasi?

—Nere urdalla oso argal daukat, eta uste det zuk ere berdiñ eukiko dezula.

—Nerau nenguan orixe zuri esan naian.

—Zerbait ere artu beariko degu; gure etxetakoak onuzkero bazkaldu dutela uste det.

—Nai dezun bezela, beñepeñ premia badegu-ta; premi-orduan ez izatekoz, eztegu ezertxo're bear.

Bazkariaren izena egin zuten, kape kopakin artu ere bai; dirurik etzuten bazkaria ordaintzeko, baña saskiak utzi zituzten.

Etixeruntz juan bearrian, artu zuten Aizko-rrégiko elizara zijoan bidea, eta, eseak zabuka egiñaz, eldu ango eliz-pera. Orduantxe sinistu zuten arterañoan sinistu izan etzuten egi bat: lurra bazebillela. An zebillen eliz-inguru guzia jira ta jira, eta zai eta oso ernai zeuden jira-bira artan noiz igaroko ote zan bere begien aurretik beren errirako bidea, andik bereala etxeruntz abiatzeko, baña lo apurtxoren bat ere egin zuten eta nunbait bitarte artan igaro zan bide ura; beñepeñ etzan ageri. Onetan loak oso artu zituan.

Bitarte onetan errian eta batez ere emakume auen etxeetan arduratan zeuden, eta illuntzian jo zan kalia pregoia:

Bi emakume dira
erritikan galdu,
aza saltzera juan ta
eztira azaldu.
Eztakigu dituzten
azak ondo saldu,
edo poltsatik ote
diran oso sailldu.

Pregoa amaitu baño len aditzen zan bur-tirrintzi andi bat. An zetorren Aizkorregiko sakristaua bere gurdian bi emakume zekarz-kiala eta kantari:

Bi emakume auek
erritik galduak
gure eliz ondoan
artu ditu luak.
Igarri gabe zaizte
igaro orduak,
bestek eztu errurik
baizikan arduak.

Ango txalo, barre ta iskanbillakin esnatu ziran bi emakumiak, eta ixill-ixillik eta lotsaturik juan ziran beren etxeetara.

Orra etxeraturik
gurdiz ekarrita,
zeiñ ederki dagoan
pareja polita.

POSDATAN: Andik aurrerakoan Berritxuren etxe-aurretik igarotzean *Aitaren* egiñ... eta aurrera mutillak.

“Euskal-Esnalea”, 1919, Azarua

Ijitoak sal-erosiyan

I

—Aizazu, Prontxio (1): Zer arraye! Euskal Esnalea're asi da gurekin?

—Edo gu berarekin, Kaziñto.

—Egia da, gu gerok ere esnaleak gera.

—Bai, loti gutxi da gure artean; arlotiak eztet esaten ez gerala're, baña lotiyak ez gera; beti ernai.

—Gañera gu euskaldunak eta eskaleak ere bagera.

—Bai artzalleak ere, baña emalleak ez.

—Ez, elitzake izango ondo're titulo guziyak gerontzat artzia.

—Zer egin zenduan atzo Don Kelemete-rekin?

—Ezer ere ez, aren poltsak zazpi korapillo izan bear ditu ta.

—Zenbat eskatu ziñiyon zaldiyagatik?

—Irurogei duro.

—Ta eskeñi?

—Berrogei ta lau; amar eskeñi balizkit,

(1) Prudenzió. (Egillearen oarra.)

egingo genduan pesta ederra San Prontxio egunian.

—Nik egingo diyot Kelemete orri kelesaka eder bat.

—Ia ba ezer egiten dezun.

—Bai; atoz bigar, goizeko zortziyetan, Aldapetako bentara, ta gañerako nik egingo det, zuk dakizun bezela.

—Ondo da: itz gutxi ta berak onak; mutxo serketo, pokito erdera.

II

—Kaxo, Kaziñto; zer berri dakarrek?

—Aditu det bedorrek berrogei ta lau duro eskeñi dizkala Prontxiori zalduyagatik.

—Alaxen dek.

—Nik neretzak aterako nuke zaldi ura ogei ta amarrean.

—Nik erosiko nitek ba berrogeyan.

—Baña eztezala jakiñ Prontxiok, gu biyon arteko traturik.

—Nik esanda ez dik jakingo.

—Egiñ beza ba mesede etortzeaz bigar goizean zortziyetako Aldapetako bentara ogei t'amar durorekiñ, eta, Prontxiok ikusi gabe, benteroa testigu dala, Prontxio datorren unean emango dizkit, eta nere kontu gañerako guziya. Nik bigar zaldiya nereganduko det,

eta etzi bedorri salduko diyot berrogei ta lau duroan: ala itz egingo dezu nagusiyaren aurrean.

—Eta ez ote da ezer gaizki usteko ni an ikusita? Eta neri berrogei ta lau duroan eman nai ezta, zuri ogei t'amarrean emango ote dizu ezeren uste txar gabe?

—Bai, Don Kelemete, bai: bedorrek ez-taki oraindik gutakoen herri, bañan ikasiko du.

—Eta nik zer paper egingo det?

—Bedori izango da testigu benteroarekin batean.

—Bai al daki Prontxiok?

—Bai, atzo itz egin genduan zerbait ere, ta esan zidan, ark erriko gizonik onraduenen aurrean nai zuala tratua egitea promalidade guzian: galdetu niyon ia Don Kelemete ta benteroaren aurrean naiko zukean, eta "Koooorriente" erantzun zidan.

—Beraz bigar goiz arte.

—Bai, jauna, bai; gabon Jainkoak diyola.

III

BENTAN

—Zer ordu degu, Don Kelemete?

—Zortziyak Kazinto.

—Ordu erdi barru emen izango degu Prontxio bere zaldiyarekiñ.

—Bai: ara nun datorren: agiri da Ergaras-
teko bizkarrean.

—Eman bear dizkit ba ogei t'amar du-
roak.

—Bai; ona ogei ta bostna pezetako sei bi-
llete nun ematen dizkizudan, eta zu, ben-
tero, testigu izango zera.

—Bai, jauna. (Benteroak).

IV

—Kaziñtok, kartera atera, sei billetiak an
sartu, ta kartera kolkuan sartu zuan.

—Badakizu, Kaziñto, Prontxio oso geldi
datorrela?

—Nik azkartuko det ura, joaten banaitza-
yo. Ar beza, Don Kelemete, kartera au, ta,
biyurtzen naizenian, emango dit ixill-ixillik.
Egundorik azkarren ekarriko det Prontxio
zaldiyarekiñ.

V

—Bazatoz, Prontxio?

—Bai, Jauna.

—Eta Kaziñto?

—Orridiko nagusiak deitu diyo, man-
duari sangri bat ematera, gaixorik daukala-
-ta; bereala datorrela esan dit.

—Zer tratu dezute?

—Jauna, irurogei duro eskeñi dizkit eta
ematera noa.

—Norentzat ote du?

—Italiano batentzat; orain emango dizkit ogei t'amar duro, ta gañerakoa, saltzen duanian, eta esan dit laxter dala emen, egin dezagula abroka bitartean.

—Egin dezagun ba.

VI

—Egin zan abroka, igaro ziran bi ordu, baña Prontxio etzan agiri. Kaziñtok pagatu zuan abroka, ta pake santuan juan ziran ba-koitza bere etxera, Prontxiori zer gerta ote zitzayon jakin nayeanean.

—Don Kelemetek lenbiziko egin zuan lana izandu zan, karterako billetiak osorik ote zeuden ikustia. Osorik egon zitezkean, baña ez an. Zer arkitu zuan ba? Paper zar batzuek kartestalki batean sarturik, eta estalkiyaren gañian ondorengo bertso au:

Kelemetek zaldiya
erosiko luke,
bere jabeak eman
nai baliyo merke;
paper zarrak ogei ta
amar duron truke,
laster egingo dute
Markes edo Duke.

* * *

Post-datan. Don Kelemeteri telefonemak
Jorraillaren 28-an:

1-i.: Prontxio ta Kaziño dantzan lertzen
dabiltza Pageiko ardotegiyan artsaldeko
6-etan.

2-n.: Burrukan gabeko 9-etan.

3-n.: Maipean lo gaberdiyan.

“Euskal-Esnalea”, 1909

Mariari bere bakardadean (1)

Mariak dio: "Semea gabe
nago umezurtz egiñik,
begira ote dan atsekabe
nik dedanaren berdiñik".

1/ Ama maitea, nai zaitut zure
bakardadean lagundu,
zure naigabe neurri gabeak
al banitzake bigundu;
baldin lenago luzaro banaiz
pekatuan lo egondu,
lengo gaizkiak ondo egiñaz
nai ditut orain konpondu.

(1) "Au da Urruzuno jaunak *Argia*-rentzat egin zuan azkenengoetako lana. Mariari, berarekiñ batean zeru goietan bizi izatea eskatzen dio. Zeruko Ama maiteak entzun dio, ta bere ondora betiko eraman du. Ala izan bedi.

Ill zan 1923-IV-14-an." ("Argia" albistariaren oarra.)

2/ Pekatu egiñ eta anima
sarri dedala zikindu,
egia da ta gañera berriz
zure biotza samindu;
baña neretzat ori egiña
biziro damu ta min du,
negar egiñaz nai dizut, Ama,
atsekabea arindu.

3/ Ar nazazula zure semetzat
Jesusek dizu agindu,
zure Semeak gurutzetikan
agindu ori egin du;
ai, Zuganako maitasunean
Berak sutuko banindu,
eta zeruko aingeruakin
maitasunean berdindu!

4/ Nola Jesusek bere odola
nigatik du an ixuri,
nere anima odol onekin
dago garbi ta txit zuri;
bion Ama Zu zeran ezkerro
arrazoizkoa diruri,
biotz osoaz nai izatea
Ark neri ainbat nik Zuri.

5/ **Beti gozoro oroituko naiz
Jesus onaren izenaz,
etzaite aztu Ark gurutzetik
iltzerakoan esanaz;
biziko gera ni zure seme,
Zu nere Ama izanaz,
biok batera negar egingo
degu gugatik ill zanz.**

6/ **Nere denbora guziko neke
atsekabe ta penetan,
zure ondora etorriko naiz,
esaten dizut benetan;
aldendu gabe zure ondotik
beñere mundu onetan,
bizituzeko bizi guzian
Zurekin zeru goietan.**

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso asko (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. *F. Apalategui, S.I.*: EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso asko.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA ta beste bertso asko.
6. *Toribio Alzaga*: RAMUNTXXO.
7. *Ramos Azkarate*: GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
8. *Antero Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *Bitoriano Iraola*: OROITZAK ta beste ipui asko.
10. *Bertsolariak*: ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962).
11. *Piarres Larzabal*: BORDAXURI
12. *Bilintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. *Mariano Izeta*: DIRUA GALGARRI.
14. *Piarres Larzabal*: IRU ZIREN.
15. *Bertsolariak*: EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. *Alfonso M.º Zabala*: GABON GAU BAT ta beste ipui asko.
17. *Antonio M.º Labayen*: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. *Antonio Zavala, S.I.*: TXIRRITA (*Bizitza ta bat bateko bertsoak*).
20. *Franzisko Goñi, S.I.*: LURDESKO GERTAE-RAK.
21. *Piarres Larzabal*: HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE.
22. *Bertsolariak*: BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK ta beste ipui asko.

24. *Fermin Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOIASAK.
26. *Alfonso M.º Zabala. A. Larraitz, Juan Mir*: PE-
RIYAREN ZALAPARTAK.—Melitona'ren bi se-
narrak.—Mendibe'tarren larriyak.—Utzi bearkol
—Gizon bikañak.
27. *Bertsolariak*: AZPEITIKO PREMIYOAREN BER-
TSOAK.
28. *Bizenta A. Moguel*: IPUI ONAK.
29. *Toribio Alzaga*: BURRUNTZIYA.—Bernaiño'ren
larriyak.—Txibiribiri.—San Tomas'eko feriya.
30. *Graziano Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA
ta beste bertso asko.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO
ERROTAREN BIZITZA, bere alabak kontatua.
33. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO
ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *Piarres Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *Agustin Cardaberaz, S.I.*: EUSKERAREN BE-
RRI ONAK.
38. *Sebastián Salaverría*. NERONEK TIRAKO NIZ-
KIN.
39. *Bertsolariak*. AMAR URTEKO BERTSO-PAPE-
RAK.
- 40-41. *Jose Ramon Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. *Bertsolariak*: BERTSOLARIEN TXAPELKETA
(1-I-1965).
44. *Piarres Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *José María Satrústegui*: BORDEL BERTSU-
LARIA.
47. *P.M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
48. *Pedro Barrutia, Sor Luisa, Xabier Munibe*: TEA-
TRO ZAARRA.
- 49-50. *Antonio Zavala S.I.*: PELLO ERROTAREN
ITZALA.
- 51: *P.M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak.



1027932

JB-922

IMPRESO EN ESPAÑA